

LEKUAN LEKUKO anboto

ELKARTASUNA

Durangaldeko herritarren babesean, uda oporretan eta bakean pasatzeko


Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren 40 bat ume saharar eskualdean izango dira abuztuaren amaierara arte / 4



Durangoko Udalak harrera egin zien Saharako umeei eguaztenean.

MENDI LASTERKETAK

Zaldibarren 330 korrikalari batuko dira zapatuan Durangaldeko Kopako hirugarren proba lehiazeko / 8



FUTBOLA

Carmelo Cedrun hil da asteen, Athleticen eta euskal futbolaren historiako atezainik mitikoenetariko bat / 6



LEHIOR ELORRIAGA

ZORNOTZAKO JAIK / 17



OTXANDIOKO JAIK / 13



EKLIPSEA

"Inoiz eklipsea ikusi dutenek esperientzia berezia dela diote, eta behin ikusita harrapatu egiten zaituela"

Abuztuaren 12ko eguzki eklipse totala Durangaldetik ere ikusi ahalko da. Aranzadi zientzia elkarteko Virginia Garciaik fenomenoaren gaineko xehetasunak azaldu ditu. / 2-3



Virginia Garcia, Javalambreko behatoki astronomikoan (Teruel).



ABADIÑO

SCHMIDT
SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Uztailaren 1etik 31ra
ESKAINITZA BEREZIA

www.home-design.schmidt

Joseba Derteano DURANGALDEA

Abuztuaren 12ko eguzki eklipse totala Durangaldetik osorik ikusteko aukera izango da. Fenomeno osoak ordubete eta 45 minutu inguru iraungo du; ilargia 19:31n hasiko da eguzkia estaltzen eta 20:27an estaliko du guztiz. Durangaldean, herri-rik herri, eklipsearen totalitateak 10 bat segundo iraungo du gutxi gorabehera. Aranzadi Zientzia Elkarte astronomia arloko kidea den Virginia Garcia Penak (Pasai Donibane, 1979) azken asteotan eklipseari buruzko berbaldiak eta jardunaldi dibulgatiboak eskaini ditu eskualdean azken asteotan. Besteak beste, Abadiñon eman zuen berbaldia, maiatzean. Fenomenoaren gako nagusiak azaldu dizkio ANBOTOri.

Zer gertatuko da eklipsea hasten denetik amaitzen den arte? Zer ikusiko dugu une bakoitzean?

Eklipsearen hasieran, ilargia eguzkiaren aurretik igarotzen hasiko da eta betaurreko aproposak jarrita eguzkia apurka estaltzen doala ikusiko dugu. Ilargia bera ez dugu ikusiko, argi kontrastearengatik; ilberri fasean gaude eta Lurrera begira duen alde itzaletan dago. Durangaldean eklipse osoa izango dugu segundo batzuetan: ilargiak guztiz estaliko du eguzkia. Une horretan baino ezingo ditugu kendu betaurrekoak, eguzkiaren koroa ikusteko. Eguzkiaren kanpoko geruza da koroa eta Lurretik begi hutsez eklipse oso batean baino ezin da ikusi. Eklipsearen totalitatearen amaieran, segundo batez edo, Bailyren perlak agertuko dira. Eklipsearen ertzean agertzen diren argi puntuak dira. Izan ere, ilargiaren gainazala ez da guztiz laua; mendiak eta bailarak ditu eta eguzkiaren izpiak bailaretatik igarotzen direnean argi-puntu batzuk bezala ikusten dira. Handik berehala, beste instante labor batean, diamante-eraztunaren efektua ikusi ahal izango da, eguzkiaren lehenengo izpia berriro agertzen den unea. Orduan eklipseko betaurrekoak ipini beharko dira berriz ere, eta hortik aurrera eguzkia apurka-apurka berriro agertzen ikusiko dugu. Eklipsearen ondorio bat da tenperatura jaitsi egingo dela. Eklipse luzeetan 10 graduraino jaitsi daiteke. Gurea ez da hain luzea eta tenperatura jaitsiera ez da hain nabarmena izango.



Virginia Garcia, Javalambreko (Teruel) behatoki astronomikoko teleskopioaren aurrean.



"Hurrengo eklipse totala 2183. urtean izango dugu Euskal Herrian"

VIRGINIA GARCIA PENA ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Abuztuaren 12ko eklipse totala geroago eta gertuago dago. Garciak fenomenoaren gaineko xehetasunak eta segurtasunez behatzeko gakoak azaldu ditu

Euskal Herrian noiztik ez dugu eklipse totalik izan?

Azkena 1905ean izan zen. Hurrengo eklipse totala 2183an izango dugu Euskal Herrian. **Eklipse partzialak gehiagotan ere izan dira.**

"Eklipsea ikusteko, mendebaldeko horizontea ahalik eta garbien ikustea da garrantzitsua"

Bai, partzialak izan ditugu. Adibidez, iazko martxoan izan genuen bat. Eguzkiaren %21 inguru estali zen. Bestalde, abuztuaren 28an ilargi eklipse bat izango dugu. Ilargia %95ean estaliko da.

Abuztuaren 12koa ilunabar inguruan ematen dio fenomenoari?

Berezitasunetariko bat da eguzkia oso baxu egongo dela horizontean. Horregatik, behaketa-lekua ondo aukeratu behar da, mendirik edo oztoporik gabeko mendebaldeko ikuspegia duen toki bat. Gainera,

eklipsearen osotasunaren unean eguzkia baxu egongo denez, zerua normalean baino ilunago egongo dela uste dugu.

Euskal Herrian zeintzuk dira behatoki onenak eklipsea ikusteko? Toki garai batera igo behar da?

Eklipsea ikusteko, mendebaldeko horizontea ahalik eta garbien ikustea da garrantzitsua. Leku garai batera igotzeak mendebaldeko garbi egongo dela segurtatzen du, baina ez da ezinbestekoa. Mendebaldeko garbi badago toki baxuan egonda ere ondo ikusiko da.

Segurtasunari dagokionez, zer hartu behar da kontuan?

Segurtasunari dagokionez, arau nagusia da eguzkiari begiratzen diogun bakoitzean eklipseko betaurreko homologatuak erabiltzea. Salbuespen bakarria ilargiak eguzkia %100 estaltzen duen unea da. Une horretan baino ez dira kendu behar betaurrekoak, eta kontuan hartu behar da osotasunaren iraupena aldatu egiten dela tokiaren arabera. Eklipseko betaurreko homologatuak ez dira garestiak; Aranzadin bost euroan ditugu salgai.

Saltzaile asko esaten ari dira eklipse batetik bestera betaurrekoak aldatu behar direla. Ez da egia. Ondo zaintzen badira, iragazkia urratu gabe, hurrengo eklipseetarako ere balioko du.

Eta neurriak hartu behar dira eklipse mugikorren bitartez jarraitzeko?

Printzipioz ez, mugikorretik begiratzen badugu ez gaudelako eguzkiari zuzenean begira. Denok atera izan diogu inoiz argazkiren bat eguzkiari, eta ez da ezer gertatzen. Kontua da eklipse batean luzaroago egongo garela begira. Orduan, kamaren sentsorea berotu eta hondatu egin daiteke. Beraz, ez da komenigarria. Mugikorraren aurrean filtroren bat jartzea litzateke egokiena; eklipserako betaurrekoa bera izan daiteke.

Zuk zelan biziko duzu eklipsea?

Eklipsearen egunean lanean arituko naiz. ETBrentzako programa berezi batean parte hartuko dut eta Araban izango naiz fenomenoaren berri ematen. Beraz, lanean egongo naiz, baina aldi berean eklipseaz gozatzen.

Inoiz ikusi duzu eklipsea osorik?

Ez, nire lehenengo eklipse osoa izango da. Hala ere, eklipse asko zuzenean bizi izan dituzten tsonak ezagutzen ditut. Esaterako, estatuan eklipsarik gehien ikusi duen pertsona ezagutzen dut. Salamancarra da eta abuztuko hamahirugarren eklipsea izango du. Berak beti esaten du eklipse oso bat bizitzea esperientzia berezia dela eta behin ikusita harrapatu egiten duela.

Instituto Geográfico Nazionalaren eklipse-bisore ofiziala. Zure herrian eklipsea noiz hasi eta amaituko den, totalitateak zenbat iraungo duen eta fenomenoaren xehetasun guztiak zeintzuk diren kontsultatu daiteke.



EKLIPSEA

"Orain 20 urte baino gehiago berba egin genuen eklipse honi buruz lehenengoz"

ASIER JAIO MALATSETXEBARRIA IZARRA ASTRONOMIA ELKARTEKO PRESIDENTEA

Eklipsearen eguna ilusioz itxaroten dabilta egoitza Durangon duen Izarra Astronomia Elkartearen. Burgos aldera joateko asmoa dute eklipsea ikustera

Izarra Astronomia Elkarteak egutegian aspalditik gorri mar- katuta zuten hitzordua laster helduko da. Asier Jaio Malatsetxebarría elkartearen presidentea (Markina, 1984) egin duen ariketak ilusio horren neurria ematen du; azken 20 urteetan abuztuaren 12an egin duen eguraldia aztertu du, eklipsearen egunean zerua garbi egiteko zer probabilitate dagoen jakiteko.

Horrelako fenomenoak ez dira sarritan gertatzen. Izarran aspalditik itxaroten zabilatzan hitzordua da?

Orain 20 urte baino gehiago komentatu genuen fenomeno hau. 2004 inguruan Venus planetaren trantsito bat jarraitzeko batu ginen eta gogoan dut 2026ko eklipseari buruz berbetan ibili ginela orduan, Durangon eta Durangaldean ere ikusiko zelako.

Zure lehenengo eklipsea izango da?

Nire lehenengo eklipse totala izango da, bai. 90eko hamarkada amaieran, uste dut 1999. urtea zela, eklipse partzial bat ikusi nuen. Hemendik ere ikusi zitekeen. 14-15 urte nituen orduan. Gogoan dut oso momentu polita izan zela. Eklipse baten

nondik norakoak ez nituen guttiz ezagutzen, baina sentitu nuen ez zait ahaztu oraindino. Harrezkero ez dut gehiago ikusi; eklipse ehiztaria izatea garestia da eta sarritan urrun joan beharra dago.

Zelakoa da Durangaldean eklipsea ikusteko aukera? Eguraldiak la- gunduko du?

Euskalmeten eta antzeko web- guneetan begiratu dut azken hogeitau urteetan zer eguraldi egin duen eskualdean abuztuaren 12an, arratsalde inguruan. Ha-

malau bider eguraldi ona egin du eta seitan txarra edo lainotua. Beraz, %70 inguruko probabilitatea dago eguraldi ona egiteko. Ez da probabilitate txarra, baina badakigu Euskal Herriko eguraldia ez dela beti fidagarria. **Izarrakoek non ikusiko duzue eklipsea?**

Burgosko Paramo de Masa ingurune naturalera joatea da gure asmoa. Hainbat arrazoigaitik aukeratu dugu toki hori. Batetik, han azken 20 urteetan abuztuaren 12an egindako eguraldia aztertu dut. Datu horiekin, arratsalde eguzkitsua egiteko probabilitatea %95ekoa da. Bestetik, inguru laua da eta hori inportantea da, eklipsea gertatzen den unean eguzkia horizontean baxu egongo delako. Azkenik, eklipsearen totalitateak Durangaldean baino gehiago iraungo du: minutu eta erdi gutxi gorabehera. Ez dakit zenbat jende batuko den han. Beharbada askok ideia berdina izan dugu eta jende asko batuko da.

Zer aholku emango zenioke Durangaldean geratzen denari?

Ahal den neurrian, mendira edo toki garai batera joateko. Kontuan hartu beharreko daturik

"Burgosko Paramo de Masara joatea da gure asmoa, hainbat arrazoigaitik"

"Abuztuaren 12an eguraldi ona egiteko %70eko probabilitatea dago Durangaldean"



Jaio astronomoa, elkarteak Durangon Intxaurrendoko oktogonoan duen egoitzan.

garrantzitsuenak hauxe da: mendebaldeko ondo ikusi dadila. Esaterako, Oizengoenak Aramotz ingurura begiratu beharko du. Eta beste aholku bat ere emango nioke eklipsea ikusten doanari: geratu dadila denbora gehiagorako.

Zergaitik?

Abuztuaren 12ko gaua Pertseiden euriaren unerik onena izango delako. Herri hizkeran 'izar iheskorak' deitzen diren meteoroidak dira Pertseidak, eta urteko ikuskizun astronomikorik ezagunenetariko bat osatzen dute. Gainera, ilberria izango denez, zerua ilunago egongo da eta oraindino hobeto ikusiko dira. Ez da plan txarra: eklipsea lehenengo, eta Pertseidak gero. **Zein da eklipsearen inguruan jendeak egiten dizuen kontsulta nagusia?** Zergaitik ez diren gehiago egoten edo zergaitik hartzen duten

hain zonalde txikia. Urtean zehar antolatzen ditugun ekimenak aproposak izaten dira horrelako dudak argitzeko eta datu kuriosoak emateko. Esaterako, kuriositate legez, eguzki eklipsea ilberan izaten da beti, eta ilargi eklipsea ilgoran.

Eklipseek astronomiarako zaletasuna pizten laguntzen dute?

Baietz esango nuke. Eklipseekin errazago 'saltzen' da astronomia. Teleskopio batetik planetak edo bestelako astro batzuk ikusi ditzakezu, baina eklipsea handiagoa da eta norbere begiekin ikusten da. Hori sentsazio berezia da.



Bideoa ikusteko, eskaneatu QR kode hau.

Smurfit
Westrock
Central Forestal

+55 urte Euskadiko pinudiak zaintzen

Smurfit
Westrock
Nervión

Etorkizun hobe baterako enbalaje iraunkorrak

40 bat ume sahararrek eskualdeko patxadan igaroko dute uda, oporretan eta bakean

Izurtza, Durango, Zaldibar eta Elorrio dituzte harrera herri, besteak beste

Aitziber Basauri DURANGO

Ume sahararrak Durangaldean daude dagoeneko. Río de Oro, Hamadako Izarrak eta Lajwad elkarteek koordinatuta egingo dute egonaldia. Río de Oren eskutik bederlatzi umek igaroko dute uda Izurtzako aterpetxean, eta zortzik eskualdeko hainbat familiaren etxeetan. Hamadako Izarrak elkartearen bitartez etorritako ume sahararrek Olazaroko aterpetxean egingo dute egonaldia, Zaldibarren. Elorrioko Lajwad elkartearen eskutik lau ailegatu dira. Elorriarren etxeetan pasako dute uda.

Eguazten goizean, Durangoko Udalak harrera egin zien Río de Oro eta Hamadako Izarrak elkarten bitartez etorritako umeei, eta ekitaldian Mujtar Leboihi Emboiric Fronte Polisarioko ordezkariak parte hartu zuen. "Hunkigarria da niretzat hemen egotea. Oso gogoan dut zenbaterako poza eta zoriona ematen zizkigun uda beste familia batzuekin pasatzeko genuen aukerak", esan zuen. *Oporrak Bakean* programa bere belaunaldiagaz hasi zen, hain zuzen ere.

"Izurtzako aterpetxeko umek ezin hobeto egokitu dira eta familietan ere oso ondo egokitzen dabilta", esan zuen Río de Oroko Mikel del Arcok. Hamadako Izarrak elkarteak Iazaro Etxebarriak adierazi zuen urte berezia izaten ari dela, elkarteak azkenengoz hartuko ditu eta umeak harreraren: "Sentimenduak puri-puritan ditugu.



Saharako umeak, Urkiolara egindako txangoan. RIO DE ORO



Eguaztenean, Durangoko Udalak harrera egin zien ume sahararrei.

Umeek badakite Durangaldera datozen azkenengo urtea dena. Askok ez dute aukerarik izango errefuxiatuen kanpamentuetatik irteteko". Lajwad elkarteak kide Maialen Bernasek azaldu du lau neska-mutikoe-

tariko hiruk azken urtea izango dutela. Besteak urte bi dituela aurretik.

50 urteko gatazkari irtenbidea eman bitartean, lanean jarraituko dutela azaldu dute elkarteetako kideek.

15 proposamen Durangoko parte hartze bidezko aurrekontuetan

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak uztailaren 24ra arte zabaldu du parte hartze bidezko aurrekontuetan botoa emateko epea. Proiektu aukeratuek 2027ko udal aurrekontuetan izango dute isla. Guztira, 27 proposamen helarazi dituzte eta 15 igaro dira azken fasera, irizpide teknikoak gaindituta.

Kirol eta gazteria arloan bost proposamen daude aukeran. Durangoko Itzulia antolatzea da eurretari bat, eta *crossfit* lehiaketa bat eta gazteentzako aisialdi programak antolatzea beste batzuk. Kultura eta Euskara Sailean, zortzi egitasmo igaro dira bozketara, hala nola Eus-

karaldiko musika jaialdia, horma irudiak egitea eta parkeetan ekimenak antolatzea irakurketa bultzatzeko. Gizarte gaietan eta jaietan proiektu bi daude aukeran: plazetan xake taula erraldoiak ipintzea eta *Emakumeak musikan* zikloa antolatzea. Udalak 300.000 euro erabiliko ditu proiektuetarako, 100.000 euro sail bakoitzerako.

Bozketa uztailaren 24ra arte egongo da martxan. Parte hartzeko, Durangon erroldatuta egon behar da eta 16 urte baino gehiago izan. Pertsona bakoitzak arlo bakoitzeko proposamen bat aukeratu ahal izango du *partehartu.durango.eus* webgunearen bitartez.

Durango, pausu erronkako irabazle



DURANGOKO UDALA

E.H. DURANGO

Mugiment Pausu Erronkan 56 udalerrik parte hartu dute eta horien artean Durango izan da partaidetzarik handiena izan duena: 74 durangarrek bat egin dute. Gainera, Catalina Materio durangarrak aitortpen berezia jaso du, desgaitasuna duten emakumeen kategorian urratsik gehien egin duena izan delako. Beste bost herritarrek opari txartel bana jaso dute.

Zenbat ezagutzen duzu

Berriz?

Irabazi afari bat
Ereña jatetxean 🍷



PARTE HARTU
ORAIN!

SARTU,
JOKATU
ETA IRABAZI
OTORDU BAT!

Mallabiko hainbat enpresa haserre Ermuko Udalak ezarritako debekuagaz

Ermuko Udalak debekuak ezarri dizkie Urtiako eta Goitondoko industrialdeetara doazen ibilgailu astune

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Mallabitik gertu, Ermuan hain zuzen ere, urteetako arazoa dago trafiko astunen joan-etorriagaitik. Herri erditik igarotzen den trafikoa herritarren kezka iturri da, eta bertan saihebidetza egitea eskari historikoa. Saihebidetza egiteko proiektuak fase bi ditu: hegoaldeko fasea eta mendebaldeko fasea. Lehenengoa amaituta dago, 2018tik dago erabilgarri, eta bigarrena oraindino egin barik dago. Bigarren honek zuzen-zuzenean eragiten dio Mallabiko industrialdeei, zerbitzua emango baitie Urtia eta Goitondoko enpresei. Urtiako bidearen proiektua, esaterako, urtarril amaieran aztertu zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak, eta, jakinarazi zuenez, lanak urte amaieran hasi eta 36 hilabetez gauzatzea aurreikusten dute.

Lanak egin bitartean, eta herriguneko trafikoa murrizteko asmoz, Ermuko Udalak indarrean sartzeaz dauden zenbait debeku ezarri ditu. Alde batetik, Ermutik Urtiarako bidea 24 orduz itxi dute trafiko astunarentzat, eta, bestetik, ibilgailu astunek debekua izango dute Goitondoko bidean 22:00etatik 08:00etara.

Debeku hauen aurrean, Mallabiko Udalak eta hamabost bat enpresak euren haserre agertu eta alegazioak sartu zituzten orain aste batzuk. Ermuko Udalak atzera bota zituen alegazio horiek. Igor Agirre Mallabiko alkateak ANBOTOrri jakinarazi dioenez, enpresa horietatik hiruk berriro ere alegazioa sartu dute orain, eta berraztertze-erreskurtso fasean dago. Ermuko Udalak erreskurtsoak berriro atzera botako balitu, enpresa hauek epaitegira jotzeko aukera izango lukete.

Komun publikoa ipini dute Garain, umeentzako jolas eremuaren ondoan

Ekaitz Herrera GARAI

Garaiko Udalak komun publikoa atondu du San Migel aldean, txintxaunen ondoan, eta sute-ahokak ere instalatu ditu eremuan. 73.000 euroko inbertsioa egin du guztira, eta proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan du (50.500 euro). Udalak gogoratu du proiektua 2025eko aurrekontuak eztabai-

datzeko prozesuan sortu zela. "Herriko Taldeak proposatu eta gero, udalean ordezkariak duten talde biek (EAJk eta Herriko Taldeak) 5.430 euroko diru-zuzkidura aurreikusi zuten komun publiko baten bideragarritasunari buruzko txostena egiteko asmoz", gogoratu dute. Etorkizunean txintxaunak estaliko dituztela iragarri dute.



Komun publikoa San Migel aldean ipini dute. GARAIKO UDALA

Haizagailua: beroari aurre egiteko aliatu berria etxebizitzetan

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Abadiñoako Eroski merkataritza zentroari haizagailuen izakin guztiak agortu zitzaizkion orain aste bi, alerta gorriko bero boladan. Haizagailuen apalategiak hutsik ageri ziren eta kartel bat ipini zuten izakin guztiak agortu zirela iragartzeko. Merkataritza gune handiez gainera, dandari txikiek ere sendo igarri dute joera hori. Horixe da, hain zuzen ere, Iurretako Izarbe etxetresna dendaren kasua: "Haizagailuen salmentak gora egin du nabarmen. Lehen, hiru-lau saltzen genituen urtean. Aurten, berrehun baino gehiago saldu ditugu dagoeneko, eta uda osoa dugu aurretik", azaldu dio Jon

Alzelai arduradunak ANBOTOrri. Herritarren jarreraren ere igarri du alde: "Jendea desesperatuta dator beroa dela eta. Beste inon ez duela haizagailurik topatu, eta ea hemen badaukagun. Hona etorri, haizagailua erosi eta kito. Denak saldu genituen. Izakin gehiago eskatu dugu, eta bagabiltza saltzen. Jendeak dagoena hartzen du", azaldu du Alzelai. Eta esan du mota guztietako haizagailuak dituztela. Zutik ipintzekoak, mahai gainean ipintzekoak, sabaikoak eta aire girotu eramangarri legez funtzionatzen dutenak.

Euskal Herriaz gainera, berroaldia Europa osoa astintzen



Izarbe dendako Jon Alzelai.

dabil. Munduko Osasun Erakundeak azpimarratu du Europa dela gehien berotzen dabilen kontinentea. Munduko batez bestekoaren aldean erritmo bikoitzean dabil berotzen.

Zelan egiten diozu aurre beroari?



ZIORTZA IURRETA

"Baserrian bizi garenez eta eraikinak horma sendoak ditueneguz, barruan egoteko moduko tenperatura izaten dugu. Gaez lo egiteko, haizagailu bat erosi dugu. Jatekoari dagokionez, gazpatxo mordoak jaten gabiltza. Bai ortuko tomateei irtenbidea emateko, bai fresko jateko".



OLATZ ETA IZADI ELORRIO

"Normalean Elorrioko igerilekura joaten gara, eta tarteka hondartzara ere bai, nahiz eta hara joateko ibilgailu gehiago hartu behar dugun. Astelehenean, adibidez, Lekeitiora joan ginen egun pasa. Berozaleak gara, baina tenperatura hauek larregikoak dira".



JESUS MARI IURRETA

"Bero hauei eutsi, hori baino ezin da egin. Egunez aguantatzea tokatzen da. Eta gaez ere, ba beste horrenbeste egitea, aguantatzea. Etxea zarratuta uzten dut, pertsianak jaitsita. Gaez dena zabaltzen dut, freskatzeko. Haizagailuak lehendik ere bagenituen".

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Carmelo Cedrun Athleticeko atezain eta Hamaika Abarkadunak taldeko kide ohia hil da

Zornotzarra 95 urtegar hil da; Athleticcegaz Liga bat eta hiru Kopa irabazi zituen

J. D. / A. M. ZORNOTZA

Athleticen historiako mitorik handienetariko bat zendu da aste honetan: Carmelo Cedrun zornotzarra. 95 urtegar hil da. Cedrun talde zurigorriaren ibilbideko garai loriatsuenetariko baten protagonistetariko bat izan zen. Izan ere, Liga bat (1955/1956) eta hiru Kopa (1954/1955, 1955/1956 eta 1957/1958) lortu zituen. Hainbat talderen entrenatzailea eta Hamaika Abarkadunak legez ezagutzen den Athleticeko talde ezaguneko kidea ere izan zen.

1951ko apirilaren 15ean debutatu zuen, San Mamesen, eta 404 partidua jokatu zituen. Jose Angel Iribarri eman zion lekukoa gero. Athleticcegaz Ligan jarraian jokatutako partiduen errekorra izan zuen Cedrunek 2019ra arte, Iñaki Williamsek marka kendu zion arte; Cedrunek 132 partidua kateatu zituen jarraian. 2019ko egun hartan, atezain izandakoak omenaldi hunkigarria jaso zuen San Mamesen.

Elkarrizketa luzea ANBOTON

Hain zuzen ere, 2019an, ANBOTOK elkarrizketa egin zion Carmelo Cedruni, 89 urte zituela. Solasaldiak hainbat titular utzi zuen,



Carmelo Cedrun. LEHIOR ELORRIAGA

baina beti erakusten zuen umiltasuna izan zen adierazgarriena. Biografiarako izenburuaz galdetuta, "Espero zena sobera kunplitu zuen atezaina" erantzun zuen. Hala ere, kunplitu zuen atezain bat baino askoz ere gehiago izan zen Athleticen zein euskal atezainen historian. Cedrunek SD Amorebietan hasi zuen ibilbidea, eta gero fitxatu zuen Athleticek. Taldera batu zenean, besteak beste, Zarra, Panizo eta Gainza jokalariekin partekatu zuen aldagela. Halako izarrak lehenengoz ikustean "ikara" sentitu zuela

onartu arren, asko lagundu ziotela gogoratzen zuen: "Temo Zarrak asko estimatzen ninduen. San Mamesera irten aurretik, tunelean, 'onena zara' eta antzekoak esaten zizkidan. Orduan, Jose Iraragorri zen entrenatzailea, eta hark ere animatzen ninduen: 'Begira, hemen izar asko dago, baina zeu zara onena! Eurak baino gehiago emateko kapaz zara!'. Nik barretxo bategaz erantzuten nion, baina ezin dut berbeekin adierazi hori entzuteak zelako segurtasuna, lasaitasuna eta motibazioa ematen zizkidan".

Athleticcegaz irabazitako tituluaren artean, 1958ko Kopa zuen kutunenetarikoa. Real Madril menderatu zuten, Chamartinen, eta garaipen hura '11 baserritarren Kopa' izenez egin zen ezagun. Europan aritutakoa ere bazen Cedrun. San Mames elurtu batean Manchester Uniteden aurka jokatutako partidua eta hango anekdotak gogoan zituen.



Bideografikek Carmelo Cedruni orain 15 urte egindako elkarrizketa.



Carlos Gomez presidentea, Jon Castrillo entrenatzailea eta Jabi Luaces kirol zuzendaria.

SD Amorebietak Jon Castrillo entrenatzaile berria aurkeztu du

Joseba Derteano ZORNOTZA

Aste honetan Jon Castrillo SD Amorebietako entrenatzaile berria (Berango, 1995) aurkeztu dute. Jabi Luaces kirol zuzendaria eta Carlos Gomez presidentea albo banatan zituela egin zuten aurkezpena. "Niretzat ametsa da klub honetara etortzea, eta baita erantzukizun handia ere. Harrobiaren aldeko apustua egiten duen klub baten proiektua aurkeztu zidaten, eta, egia esanda, horixe egitera ohituta nago eta horretan sinesten dut", esan zuen. Leioa taldeagaz birritan igoera fasera sailkatu eta gero heldu da SD Amorebietara.

Taldean txertatu gura duen joko sistemaren inguruan ez du asko

rik aurreratu, baina etxean "erasokor eta ausart" jokatzeko asmoa du, "klubaren idiosinkrasiak eskatzen duen moduan". Etxetik kanpora, beste hainbeste egiten ahaleginduko da, beti ere "unean uneko egoeretara egokituta.

Taldeak behar duena

Jabi Luacesen ustez, Jon Castrillo "behar dugun entrenatzailea" da. "Harrobitik elikatzen den klub batetik dator eta gure gaur egungo filosofiara eta beharrietara gerturatu da. Aztertu ditugun hautagai denetatik guretzat aproposa dela uste dugu". Bestalde, taldeak iragarri du beste urte batzuetan baino fitxaketa gutxiago egingo duela.

300 ardi eta ahuntz bainatu dituzte Arrazolan Erlaunen ekimenez



1990etik datorren ohitura da.

M. Z. ATXONDO

Atxondoko abeltzainen Erlaun elkarteak urtean behin aukera ematen die herriko abeltzainei Arrazolako Anditzeko baineran ardiak eta ahuntzak bainatzeko. Hain zuzen ere, 1990. urte-tik hona urtero errepikatzen den ohitura da hori.

Abereek izan litzaketan gaitasunak ekiditea eta urteko desinfekzio kanpaina erraztea da ekimen berezi honen helburua.

Ekitaldi hau aurreko zapatuan egin zuten, uztailak 4, eta guztira 300 bat ardi eta ahuntz garbitu zituzten. Ekimenak irudi bitxi eta ezohikoak utzi zituen, alboko argazkian ikusten den moduan. Abeltzainen Erlaun elkarteak bertako abeltzaintzaren garapena bultzatzeko helburuagaz lan egiten du.

San Kristobal Txikiko bazterrak jaizalez beteko dira domekan

E. H. BERRIZ

Egun osoko egitarauagaz, Berrizen San Kristobal Txikiko jaiak ospatuko dituzte domekan, uztailak 12. 10:30ean emango diete hasiera jaiei; ondoren, meza izango dute, eta mezaostean salda eta pintxoak eskainiko

dituzte, egunari gogotsu ekiteko. Ireminie dantza taldearen dantzak ikusteko aukera egongo da gero. Goiza borobiltzeko, 13:30ean, igel txapelketa egingo dute. Arratsaldean umeentzako jolasak eta bolo txapelketa egongo dira. 19:30ean amaituko dituzte jaiak.



Dantzariak San Kristobal Txikin, artxiboko irudi bat.



OSASUN gida.

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

PODOLOGIA
PSE: 214/06

Ainara Urreta Jainaga

ONIN ZAINTZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

**NATUROPATIA
ETA HOMEOPATIA**

Aurora Julia

HOMEOPATIA · NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218
Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus

ODONTOLOGIA
PSE:177/26

DURANGO
Clinica dental · Hortz klinika

ODONTOLOGIA INTEGRATIBOA

Ahotik lortu zure osasuna

Artekale, 37 DURANGO
Tel.: 94 604 14 76
gerencia@clinicadentaldurango.com
www.clinicadentaldurango.com

ODONTOLOGIA
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzako hortz klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordutegia:
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 60 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

ODONTOLOGIA
PSE: 145/13

clinicadental hortzclinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA -
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA -
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA - ODONTOPEDIATRIA - PADI -
HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

OPTOMETRIA
PSE: 162/13

NAIA
ZABALA
AUZMENDI
11507 kot. 2k.

keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA · HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA · JATORRIZKO ERREFLEXUAK · FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA · KIROL IKUSMENA · GARUNEKO LESIOAK · UKIREN LENTEAK
- DIRTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 · 48240 Berriz · Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

PSIKOLOGIA

gure
Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen diagnostikoa eta esku-hartzea, diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 1D Durango

PSIKOLOGIA

gure
Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfiantza sendotzeko ·
- Estresa kudeatzeko ·
- Zure harremanak hobetzeko ·

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 1D Durango

FISIOTERAPIA
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

FISIOTERAPIA
PSE: 119/13

ZAINDUZ
Fisioterapia · Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Salo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374



Zaldu Traileko iazko argazki bat.

Boluntario sare zabal baten babesagaz, inoizko parte hartzailek gehien Zaldu Trailen

Zapatuan jokatu da Durangaldeko Koparako puntuagarria den lasterketa Zaldibarren

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Zapatu honetan mendi korrikalarien epizentro bihurtuko da Zaldibarko herria. Bertan, Durangaldeko Koparako puntuagarria den Zaldu Trail lasterketaren laugarren edizioa jokatu da. Lasterketa bi egongo dira, 19 kilometroko luzea, eta 14 kilometroko laburra.

Zaldu Traileko proba luzea 8:30ean abiatuko da herriko plazatik, eta laburra 8:45ean.

Ibilbideari dagokionez, 19 kilometroko lasterketako korrikalariak Eitzagara joango dira, handik Egoarbitza igo beharko dute, eta gero Aixolako presarantz joango dira. Hurrengo, Santamañezar igo beharko dute. Lasterketa laburrekoak Eitzagatik Aixolako presara joango dira eta handik Santamañazarrera.

Lasterketa biek 330 bat korrikalari batuko dituzte, 160 bat proba bakoitzeko. "Emakumezko parte hartzaileen kopurua asko igo da eta hori oso garrantzitsua da guretzat", azaldu du Nora Narbaiza Zaldu Traileko antolatzaileetarikoa batek.

Gainera, Zaldibarko lasterketak maila handiko korrikalariak hartuko ditu. Besteak beste, Gontzal Murgoitio elorriorra eta Espainiako Txapelketa irabazi berri duen Lola Oyarzabal gasteiztarra izango dira irteera lerroan.

Parte hartzaileen artean, zelan ez, antolakuntza lanetan buru-belarri zentratuta dabilen Nora Narbaiza arineketalari zaldibartarra ere badago. Araimendi taldeko korrikalaria Durangaldeko Kopa irabazteko

faboritoetariko bat da, baita etxeko lasterketako podiumean egoteko ere. Narbaizak berak ez du bere burua faboritotzat ikusten, baina iazkoa hobetzea eta gozatzea du helburu. Gainera, lerro hauetatik eskerrak eman gura izan dizkie antolakuntza lanetan laguntzen ari tuko diren boluntario eta laguntzaile guztiei. "Asko esker tzen dugu herriaren erantzuna. Boluntario sare itzela daukagu, eta, horri eskerrak, lasterketa hau antolatzen gabiltzan herriko hainbat korrikalari bertan parte hartzeko aukera daukagu", azpimarratu du Narbaizak.

Bestalde, antolakuntzako kideek eskerrak eman gura dizkiete herriko Tailla Tailerreko kideei, eurek landu dituzte-eta irabazleei emango dizkieten garaikurrak.

Paduretako hirigintza hitzarmenak eztabaida sortu du Iurretan

A.B. IURRETA

Paduretako hirigintza hitzarmenak behin betiko bultzada izan du azken udalbatzarrean. EH Bilduk EAJren babesa duen egitasmoaren aurka bozkatu zuen ekainean, eta PSE-EE abstenitu egin zen. Plangintzak 305 etxebizitza eraikitzea aurreikusen du guztira, eta horietarik 61 tasatuak izango dira, gobernu

taldeak jakinarazi duenez. EAJk nabarmendu duenez, hasierako plangintzan aurreikusitako kopurua mantendu dute, eta "informazio okerra" zabaldu izana leporatu dio EH Bilduri.

EH Bilduk etxe tasatuen kopurua erdira jaisteak kritikatu du; hau da, udalaren esku geratuko liratekeen 30 etxe tasatu eraikiko zirela jakinarazi dute.

EAJk gezurtatu egin du datu hori. "Herrian iurretarrantzat etxebizitza duin eta eskuragarria eskuratzeko benetako aukerak zabaltzea da, eta izango da, gobernu taldearen lehentasuna. Penagarria da oposizioak gura go izatea informazio okerra zabaltzea, etorkizunerako ezinbestekoa den proiektura era eraikitzailean batu beharrean", esan du Oskar Koka alkateak.

EH Bildu "arduratuta"

EH Bilduk "arduratuta" hartu du Paduretako hirigintza hitzar-

Otxandioko Anteparaluzeta auzoan ondo hartu dute radarra ipintzea

Auzokideek diote ibilgailuak "izugarritzko abiadura" doazela; radar finkoagaz abiadura 50 kilometro ordura mugatu dute

A.B. OTXANDIO

Ibilgailuen abiadura bizia dela eta, Otxandioko Anteparaluzeta auzoko bizilagunek neurriak hartzea eskatu dute hainbat urtean. Bada, begi onez hartu dute Eusko Jaurlaritzak bertan ipinitako radar finkoa abiadura murrizteko. BI-623 errepideak auzoa gurutzatzen duen tartean, abiadura 50 kilometro ordura dago mugatuta.

Rosa eta Maier Anteparaluzetako bizilagunak dira, eta biek diote ibilgailu asko "izugarritzko abiadura" igarotzen direla, batez ere gauez. "Beharrezkoa" zen radarra ipintzea, Rosaren berbetan. "Inoiz ertzainak egon izan dira aurretik eta orduan ibilgailuek moteldu egiten zuten abiadura. Baina orain radar finkoa ipini izana oso ondo ikusten dut. Ez da gustuko neurria, baina ematen du ez dagoela ikasteko beste modurik. Orain urte asko bizilagun bat hil zen ibilgailu batek harrapatuta", gaineratu du Rosak.

Bederatzi urte dira Maier Anteparaluzetan bizi dela eta berak ere begi onez ikusten du radarra, uste duen arren dirua biltzeko neurria dela gehiago. "Izurtzan legez, semaforoak ipini beharko lituzkete. Hartara ere lortuko litzateke abiadura zaintzea, eta helburua ez litzateke hainbeste izango dirua biltzea. Gainera, bidea gurutzatzea ere segurua goa litzateke. Baina, tira, ibilgailu batzuek behintzat abiadura moteldu dute", esan du Maie-



Anteparaluzetan ipini duten radarra.

rrek. "Bai, radarra dagoela ikustean frenatu egiten dute", gaineratu du Rosak.

Zebrabidea

Orain lau urte, Otxandioko Udalak hainbat obra egin zuen BI-623 errepidean eta haren inguruan. Autobus geltokiak egokitu zituen eta bidegorria egin zuen gasolindegiraino Durango-Otxandio norabidean. Abiadura zaintzeko radar egonkorra eta zebrabidea ipintzea ere aurreikusen zuten. "Beharrezkoa da zebrabide bat, beldurrez gurutzatzen dugu-eta errepidea", azaldu du Maierrek. Rosa iritzi berekoa da: "Errepidea zuzena da, baina zati batean kurba apur bat egiten du, eta batera eta bestera begiratuta arren batzuetan ibilgailua gainean duzu konturatu orduko. Trafiko handia dago, gainera".



Paduretako aparkalekua. IURRETAKO UDALA

mena. "Padureta garatu egin behar da, baina herritarren interesaren alde eginda: etxebizitza babestu gehiago sustatuta, gardentasun handiagoagaz eta udalaren ondarea ahalik eta ondoen defendatuta. Gobernu taldeak hitzarmenean agerian utzi du Paduretan eraikinak ea aparkalekuak eskuratzeko interes falta", esan du koalizioak. Eta "erabaki larritzat" jo du gobernu taldeak Bideondoko hirigintza hitzarmena ere onartzea, eta "bertako udal jabetzako lurra esku pribatuetan uztea".

CIFP Iurreta LHII GPON TEKNOLOGIA GPON teknologia ez da arrotza gure bizitzetan. Askok etxean Internet izateko daukagun zuntz bidezko konexioa teknologia horren bitartez heltzen zaigu. Lanbide Heziketan, pauso bat gehiago eman dute eta teknologia hori bereganatu dute aukera desberdinak aztertzeke: alde batetik, Internet operadore txiki bat sortzeke erronketan, eta, bestetik, industrian duen eta izango duen ibilbidea aztertzeke. Ildo horretatik, gai honi buruzko topaketa antolatu dute asteon.

CIFP Iurreta LHIIko adituek Industria eta ekoizpen prozesuen digitalizazioa funtsezkotzat jotzen dute abantaila kompetitiboa lortzeko. Mota horretako ingurune bat digitalizatzeko prozesuekin lotutako datuak era azkar, seguru, jasangarri eta eraginkor batean transmititzeko beharrak dakartzala nabarmendu dute.

Argi-abiadurako GPON autobide seguruak

Proiektuak lortu duen babesak argi uzten du CIFP Iurreta LHIIk azken belaunaldiko teknologiaren ezagutza ikasleei transferitzeko egiten duen apustua lerrokatuta



Jurgi Barreña Iurreta LHIIko ordezkaria eguaztenean egindako topaketetako parte hartzaileak aurkezten. CIFP IURRETA LHII

GPON ikasgeletara: CIFP Iurreta LHII, industria digitalaren etorkizuna eraikitzen

Televes enpresarekin eta beste bi Lanbide Heziketa zentrokekin batera garatuko duen proiektuak Hezkuntza Ministerioaren diru laguntza jaso du

dagoela erakunde eta enpresen beharrek. Hori horrela izanik, 4.0 industrian, GPON (Gigabit-capable Passive Optical Network) edo Gigabit-gaitasuneko Sare

Optiko Pasiboek funtsezko egin-kizuna beteko dute. Lanbide Heziketa teknologia berri honen ezarpenaren zati izan dadin, beharrezkoa da ezagutza horren

transferentzia burutzea. Hori dela eta, aditu gisa jardun duen Televes enpresa eta hiru ikastetxe batu dira informazio-trukea gauzatzeko: Urnieta eta Zaragozako

Salesiarrak eta CIFP Iurreta LHII. Proiektuak Espainiako Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren diru laguntza lortu du bi urteren buruan gauzatu dadin. Proiektuak bere barruan hartzen ditu gai honekin lotutako oinarri hauek:

- Lanbide Heziketara teknologiaren ezagutzaren transferentzia burutzea.
- Proiektua gauzatzeko beharrezko materialen alokairua.
- ETHAZI ereduaren oinarritutako euskarazko hezkuntza materiala sortzea eta eskuragarri jartzea.
- Lortutako jakintzaren transferentzia burutzea beste ikastetxe eta inguruko enpresetara.

Televes bidelagun

Televes enpresak sektore desberdinei komunikazio eta entretenimendu irtenbide integralak eskaintzen dizkie GPON sistemaren bidez. Horien artean daude abiadura handiko Internet, telebista zerbitzu pertsonalizatuak eta WiFi sareak, besteak beste. Punterengo enpresa honen esperientzia ezagutzea garrantzitsua izan da Iurreta Lanbide Heziketa Zentroarentzat, aurrean duen erronkari heltzeko.

Gradu bikoitza eta DUAL praktikaldia ikasleen prestakuntzan eragiteko

Irakaskuntza BERRIKUNTZA

CIFP Iurretako LHII nobedadeekin datorren ikasturterako. EAEn aitzindaria den "Instalazio elektriko eta automatikoen eta telekomunikazioen gradu bikoitza" ezarriko dute 2026/2027 ikasturterako. Bertan Lanbide Heziketako erdi-mailako "Instalazio elektriko eta automatikoak" eta "Telekomunikazio Instalazioak" zikloen edukia lantzen da hiru ikasturtetan zehar. Lan munduan eskari handia duten zikloak dira biak ala biak eta uztartekarekin jakintza osatuagoa izatea lortzen da. Amaieran bi ziklo horien titulua lortzen da behe-tentsioko instalatzaile baimendua ziurtagiri edo oinarritzko karnetarekin batera.

Gainera, azken urteetan Lanbide Heziketako DUAL sisteman aldaketak izan dira. Horien



Ikasleek inguruko enpresetan egiten dituzte praktikaldiak. CIFP IURRETA LHII

berri ere eman da Iurretako jardunaldietan: ziklo bakoitzean ikasleek 500 orduko praktikal-

dia burutzen dute guztira. Lehen mailan hiru astekoa, eta bigarren mailan hiru hilabetekoa.

Ehkom, telekomunikazio sare ireki eta komunitarioen aldeko apustuan

Ehkom GPON TEKNOLOGIA

Ehkom irabazi asmorik gabeko kooperatibak ere bere proiektua azaldu du Iurretan antolatutako jardunaldietan. Ehkom lankidetzaren publiko-komunitarioan oinarrituta Euskal Herrian telekomunikazio-sare irekiak eratzten eta kudeatzen dituen kooperatiba da. Euren asmoa herritarrak, erakunde publikoak eta bestelako eragile komunitarioak elkar konektatzea da, berauen arteko elkarlana sustatuz eta baliabideak eta zerbitzu teknologikoak parte-hartzaile guztien artean partekatuz. Bide horretan sortu

dituzten sareetako batzuk GPON teknologiaz baliatzen dira.

Eratu nahi dituzten sareen izaerari dagokionez, Ehkomek garatutako sareak "irekiak, libreak eta neutralak" direla azaldu dute. Jakintza eta helburu hauei lotutako ikerketak, proposamenak eta analisiak —zein ehun sozialeko gainerako eragileekin harremanetako mekanismoak — idaztea, editatzea, argitaratzea eta zabaltzea kooperatibaren helburu nagusienetako bat da. Hartara, Iurretan ere jakintza hori guztia azaltzeko aukera izan zuten.




Ehkomeko ordezkariak berbaldia ematen. CIFP IURRETA LHII

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE UZTAILEKO ZOZKETAK




BASA take away jatetxeko KMO haragidun eta ogi artisaudun hanburgesa eta bi saltsadun patata errazioa opari. Bariku eta zapatu gauetan gozatzeko.



Xiberu taberna (Zornotza) bi gosari bikoitz.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. (Durango)



Areatza bainuetxea. Gau bat logela bikoitza, gosaria + zirkuitu termala 2 lagunentzat.

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!



Aitor Serralvo: abadiñar bat Iruñeko entzierroan egunero-egunero

Traña-Matienako bizilagunak Estafeta eta Telefonica artean egiten du korrika

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Sanferminak ailegatzeagaz batera, asko dira Iruñera parrandara doazenak, baina gutxiak erakusten dute Aitor Serralvo entzierro korrikalariaren (Abadiño, 1990) moduko dedikazioa. Traña-Matienako bizilagunak sanferminetako entzierro guztietan egiten du arineketan, Abadiñotik Iruñera eta Iruñetik Abadiñora joan-etorrian ibili behar badu ere. Aurten halantxik ibili da uztailearen 7tik 9ra, lan kontuengaitik. "Eta ez naiz bakarra. Adrian Rivas berriztarrak, adibidez, plan bera egiten du egunero. Asko gara entzierroa amaitu bezain laster korrika goazenak autoa hartzera, ordu batzuk geroago lanera joan behar dugulako", esan du. Uztailearen 10etik 14rako egunak hirian pasatuko ditu, emazteagaz eta alabagaz. "Laneko txanda aldatzea lortu dut, eta entzierroan korrika egiteaz gainera Iruñeko kaleetan ere egongo naiz", zehaztu du. Lagunarte, txaranga, gosari eta *almuerico* artean, beraz.

Abadiñarrak ondo ezagutzen ditu sanferminetako errituak. 07:15erako Santo Domingoko aldatsean egoten da, San Ferminen irudiaren azpialdean, ohiko ko-



Aitor Serralvo eta Adrian Rivas berriztarra, Iruñeko Santo Domingoko aldatsean.

rikalariekin eta kuadrillagaz. "Han batzen gara beldurrak uxatzeko eta barre batzuk egiteko", azaldu du. Hala ere, bere benetako korrikaldia ibilbidearen azken zatian egiten du: "Estafeta kalearen amaieran eta Telefonican".

Entzierroetarako zaletasuna ez da kasualitatea, familiaritate datorkio eta. "Txikitatik ikusi ditut entzierroak Ruedan (Valladolid, Gaztela Leon), eta Durangoko sokamuturrean ere betidanik parte hartu dut, aitagaz batera. 2018an hasi nintzen sanferminetako entzierroetan

korrika egiten", argitu du. 2019an, lesio bat tarteko, hesiaren beste aldetik ikusi behar izan zituen lasterketak, baina harrezkero ez du hutsik egin. Korrikalaria izan da.

Serralvok pasioz bizi ditu sanferminak, "bakarrak" direlako, eta pasio hori familiako kideen artera ere zabaldu duela dirudi. "Tera alabak hiru urte baino ez ditu, baina jada badu bere zapi gorria, eta sanferminzale jantzita dabil!", esan du Serralvok. *Gaixoa ni* abestu arte, izango dute zertaz gozatu familian.

Abadiñok 9.540 euro eman dizkio ADEMBI elkarteari

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak 9.540 euro bideratu ditu esklerosi anizkoitza dutenentzako fisioterapia proiektu batera. Maiatzaren 30eko jaialdian baturiko dirua ADEMBI elkarteari eman diote. Bestalde, udalak eskerrak eman dizkie herritarrei, eta batez ere Iker Munillari, ekitaldi osoan izan duen inplikazioagaitik. "Herri bat kausa on baten alde batzen denean, emaitza zifra batetik harago doa. Abadiñok laguntzen duen, zaintzen duen eta pertsonekin inplikatzeko den herria dela erakusten du", esan du udalak.



Iker Munilla eta Edurne Maguregi.

Domekan plater-tiro txapelketa egingo dute Garaitorreko landan



lazko txapelketako irudi bat.

J.D. MAÑARIA

Mugarra Ateneo elkarteak Mañariko plater-tiro txapelketaren 28. aldia antolatu du domeka hone-tarako. 10:00etan hasiko da eta izen ematea 12:00ak arte egongo da zabalik. Txapelketa orokorrean, lehenengo hirurek diru sariak eta beste hainbat sari jasoko dituzte. Esaterako, irabazleak 90 euro eta Arrateko Tiro Pichon jabetxean bazkaltzeko txartel bi irabaziko ditu, besteak beste. Txapelketa sozialeko irabazleak Mañariko Arri Toki jabetxean bazkaltzeko txartel bi irabaziko ditu, besteak beste.

Mañariko Hontza Museoak 'Askondoko leize-hartza' aldi baterako erakusketa zabaldu du

Askondon aurkitutako hartzaren hezurdura eta aztarna esanguratsuak biltzen ditu

J.D. MAÑARIA

Mañariko Hontza Museoan Askondoko leize-hartzaren inguruko aldi baterako erakusketa inauguratu dute. 2027ko irailera arte egongo da ikusgai. Erakusketak Europako historiaurreko ugaztunik ikusgarrienetarikoen baten aztarnak eta hezurdura ezagutzeko aukera eskaintzen du, leize-hartzarenak. Hain zuzen ere, erakusketak Askondoko koban aurkitutako leize-hartzaren hezur eta aztarna esanguratsuen hautaketa biltzen du. "Bisitariak Pleistozenoan Europan bizi izan zen espezie handi honen historia eta ezaugarriak gertutik ezagutzeko aukera izango dute", adierazi dute museoko arduradunek ohar batean.

Erakusketaren bitartez, leize-hartzaren ezaugarri biologikoak glaziazio garaiko ingurunera izan zuten egokitzapena eta garaiko

faunagaz eta paisaiagaz zuen lotura ezagutu ahal izango dira. Era berean, Askondon aurkitutako aztarnek duten balio zientifikoa eta ondare-balioa azpimarratu dituzte, eta historiaurrearen ikerketan egindako ekarpena

nabarmendu dute. Jatorrizko piezak erakustez gainera, erakusketak ikuspegi didaktikoa eskaintzen du, indusketa arkeologikoen eta ikerketa paleontologikoen lana herritarrengana hurbiltzeko helburuagaz.



Hainbat pieza erakustez gain, erakusketak ikuspegi didaktikoa eskaintzen du.

Izurtzan Santo Tomas inguruko ibaiko sarbidea hobetu dute



Harrizko eskailera berria.

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak Mañaria ibaira jaisten den sarbidea egokitze-lanak amaitu ditu Santo Tomas inguruan. Esku-hartzea errepide nagusia eta aisialdi gunea lotzen dituen zubiaren azpian egin dute. URaren irizpideetara egokitzeko, hormigoizko jaitziera zaharra kendu eta harriz beteriko gabioekin osatutako hiru mailako eskailera eraiki dute. Horrez gainera, ibaiertza harriz indartu dute, lurraren higadura eta uholdeek eragin ditzaketen kalteak ekiditeko. Lanak joan zen astean amaitu zituzten.

Elorrioren zabalik dago Goietako alokairu sozialeko etxebizitzetan izena emateko epea

Elorrioko Udalak Etxebiden izena ematera deitu ditu interesa duten herritarrak

J.D. ELORRIO

Alokairu sozialeko sei etxebizitza esleitzeko prest daude Goietan. Esleipena irailean egitea aurreikusten dute. Ildo horretatik, prozesuan parte hartu ahal izateko, Etxebiden (Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan) izena emanda egotea "ezinbestekoa" dela gogoratu die Elorrioko Udalak herritarrei ohar batean. Eta izena emanda daudenei "espediente eguneratuta dagoela egiaztatzea" gomendatu diete.



Irailean egin gura dute esleipena. UDALA

Bizilekuen ezaugarriak

Goietako sustapenak pertsona bakarrentzat edo bikoteentzat pentsatutako etxebizitzak izango ditu. Etxebizitzaren azalera erabilgarria 45etik 56 metro koadrora artekoa izango da, eta denek egongela-jangela eta sukaldea espazio berean, logela

narritutako sistema horrek etxebizitzaren energia-eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetuko ditu.

Bide bi izena emateko

Lanbide Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza eta zuzkidura-bizitokien eskatzaileen erregistroa da eta bertan izena emanda egotea ezinbesteko baldinza da babes publikoko etxebizitzak esleitzeko. Aukera bi daude izena emateko. Batetik, bide telematikoa; hau da, eskaera modu elektronikoan aurkeztu daiteke, beharrezko dokumentazioa formatu digitalean erantsita eta sinadura elektronikoki balioduna erabilia. Bestetik, izena aurrez aurre emanda. Eskaera inprimatuta eta beharrezko dokumentazioagaz batera aurkeztu daiteke Zuzenean bulegoetan edo Etxebideguz hitzarmena duten udaletan.

GKS-ren eta IAS-ren udako martxa martitzenean hasiko da, Elorriotik

J.D. ELORRIO

Durangaldeko GKS eta IAS udako 'Durangaldeko gazte sozialisten martxa' egingo dute datorren astean. Martxa martitzenean hasiko da, 10:00etan, Elorrioren. Lehenengo etapan Elorriotik Abadiñora joango dira. Arratsaldean zehar askotariko tailerrak eta berbaldiak egingo dira Abadiñon.

Eguazteneko bigarren etapan Abadiñotik Otxandiora joango dira. Arratsaldean Chill Out eta Mojitada musika taldeen kontzertuak izango dituzte gozagai. Eguena, martxako azken eguna, Otxandion emango dute. Besteak beste, karropoteoa, berbaldiak eta bertso bazkaria egingo dira martxako parte hartzaileentzat.



Martxako aurkezpen ekitaldiko irudi bat.

Zornotza Trail taldea hirugarren Loiuako Euskal Backyard Ultra proban

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Zornotza Trail taldeko korrikariak zorioneko daude. Uztailaren 3an, taldekako hirugarren postua eskuratu zuten Loiuako Euskal Backyard Ultra proban, eta horri eskerrak podiumera igotzea lortu zuten, taldearen historian lehenengoz. Loiuako Backyard ultra proba erresistentziari eta iraupenari loturiko

lasterketa da. Korrikariek 6,7 kilometroko zirkuitua egin behar dute, behin eta berriro. Baina ez jarraian, ordu bakoitzean buelta bat. Eta orduero puntuak, hurrengo bueltari ekiten diote. Buelta bakoitzean denbora soberan geratuz gero, gura dutenerako aprobeztatu dezakete hurrengo ordura arte: atseden hartzeko, jateko... Probak ez du iraupen

edo itzuli kopuru zehatzik. Eta horrela gorputzak kito esan arte. Korrikariren batek itzulia ordubetean amaitzen ez badu edo hurrengo irteerara agertzen ez bada, kanporatuta geratzen da. Denek dinamika horri jarraitu behar diote, harik eta korrikalari bakarria geratzen den arte.

Loiuako proban Ibon Gamboa eta Maria Recondo izan ziren irabazleak maila absolutuan. Gamboak 34 buelta eman zizkion zirkuituari, eta 228 kilometro metatu. Recondok 28 itzuli egin zituen, eta 187,7 kilometro guztira.



Zornotza Trail taldeko kideak.

POLITIKAN

Udako bizipenak Durangon



PAULE SANCHEZ
EAJ-PNV

Uda heltzen denean, askoren lehen pentsamendua Durangotik ihes egitea da.

Horieta batak hondartzetara, mendira, al pueblo edota beste leku exotikoago batzuetara joan dira jada. Beste askok, lan kontuengatik, oraindik hemendik jarraitzen dugu deskonexio uneekin amesten. Baina gero eta gehiago dira uda sasoi bertan gertatzeko hautua egiten dutenak, baita mundua ikusi nahi arren joan ezin eta opor egunak etxean pasatu behar dituztenak ere.

Durangon plan desberdin asko eskaintzen ditu. Esaterako, udako beroak nekez jasaten ditugunok udal igerilekuak eta parkeetako ur-txorrotak eta jarri berri den dutxa eskura ditugu.

Kirolzaleek bizikletan ibiltzeko, inguruko mendietan ibilaldiak egiteko, paseoto leunagoak emateko eta aire zabaleko kirolgune eta parkeetan bestelako kirol jarduerak gozatzeko aukera dute.

Udagirotako jarduerak, udako zine, kale-antzerki, zuzeneko musika, auzoetako jai eta lehen mailako arte erakusketek, nahi izanez gero, kulturaz blaituko gaituzte.

Eta aurten, gainera, abuztuaren 12an eguzki-eklipse osoa ikusteko aukera aparta izango duzu Durangon bazaude.

Bizipen horiek denak etxetik gertu, gure eskura. Eta horrela izaten jarraitzea nahi dugulako, Durangoko EAJ-PNVkook lanean jarraitzen dugu.

DURANGALDEA ASTEON

Zebrabide adimendun berriak ipini dituzte Durangoko 14 lekutan

DURANGO Durangoko Udalak zebrabide adimendunak ipini ditu udalerriko 14 puntutan. Horri eskerrak, sentsoreek eta LED argiek oinezkoen presentzia ohartaraziko dituzte ibilgailu gidariak. Udalak 150.936 euro ipini ditu jarduketara horretarako.

Elorriok 'Nagusi Aktiboen Jantokia' programarako diru laguntza onartu du

ELORRIO Elorrioko Udalak 2026ko 'Nagusi Aktiboen Jantokia' programarako diru laguntza deialdia onartu du. Elorrioko adinekoen zahartze aktiboa bultzatzea eta sozializaziorako espazioak indartzea da programa honen helburua, herriko jantokietan eguneko menua kontsumitzeko laguntzak emanda, udalak ohar batean azaldu duenez.

Abadiñoko Gaztelua auzoko San Martin jaietako errifa 732 zenbakiak irabazi du

ABADIÑO Asteburuan jaiak ospatu dituzte Gazteluan. Antolatzaileek errifa bat zotz egin zuten, upategira bisita eta gau bateko egonaldia. Eta jada badago zenbaki irabazlea: 732a. Irabazleak 7 egun ditu aurkezteko; bestela, erreserbako zenbakiak irabaziko luke saria: 59ak.

Altxa Porru, Legez Kanpo, Ohil eta Maniaks, besteak beste, Mendiolan

ABADIÑO Donien Altxa jasota hasi zituzten jaiak, atzo, Abadiño Mendiola auzoan. Uztailaren 12ra bitartean, egitarau zabala izango da Mendiolan: tortilla txapelketa, kontzertuak eta Altxa Porru erromeria, besteak beste.



lazko jaietako argazki bat.

GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa / Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902



Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibeli.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SALA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



OTXANDIOKO JAIAK 2026



OTXANDIO

SANTAMAÑAK

Ondo pasa jaietan!



Otxandio
biziguraz betie

OTXANDIOKO JAIK 2026

UZTAILAK 11

GAZTE EGUNA

- 13:30 Txupinazoa Gaztetxean.
- 14:30 Bazkaria
- 18:00 Olinpiadak
- 19:30 Karropoteoa
- 22:00 Kontzertuak:
 - Ganibet
 - Laino Beltza
 - DJ Katu Gorri
 - DJ Agata Lagata

UZTAILAK 17

TXUPINAZOA

- 11:30 Bertso saioa: Xabier Amuriza eta Irune Basagoiti, Nagusien Egoitzan.
- 15:00 Herri bazkaria.
- 17:30 Txupina eta taloa txistorragaz, Otxandioko Nagusien Egoitzan.
- 18:30 Ohiko 'Salve Regina' abestuko da, Oihandi abesbatzagaz batera.
- 18:55 Soinubil eta txistulariekin batera 'Gora Otxandioarrak' abestia.
- 19:00 Txupinazoa: Hezkuntza komunitatearen eskutik. Otxandioko eskola 50 urte euskalduntzen, 'Inkernuz ereiten'. Ondoren, ohiko DANBORRADA.
- 20:30 Eusko Label haragi pintxoak.
- 23:00 Erromeria: Altxa Porru taldea.

UZTAILAK 18

SANTA MAÑA EGUNA

- 11:30 Udal Musika Bandaren kalejira.
- 12:30 Meza nagusia, Santa Marinaren omenez.
- 13:30 Kaleik kale txistularien kalejira.
- 14:00 Mutrikuko Erraldoiak eta Buruhandiak, Otxandioko eta Bizkaiko gaiteroekin batera.
- 19:00 Urduri dantza taldearen ikuskizuna.
- 20:00 Akelarre txaranga.
- 23:00 Gozategi taldea.
- 01:00 DJHMNOK ETXERA.

UZTAILAK 19

- 12:00 Arimen meza.
- 12:30 Herriko umeen pilota partiduak, Iluntxo pilota elkartearen eskutik.
- 13:30 Nafarroako Aupa La Jota taldea.
- 17:30 Master Caixa Bank pilota partidu profesionalak:
 - Serie B:
 - Murua-Eskiroz
 - Zubizarreta IV-Bikuña
 - Serie A:
 - Elordi-Marizkurrena
 - Larrazabal-Zabaleta
- 20:00 Korrontzi taldea



GOZATEGI

OTXANDIO Kontzertua Gozategi taldeak kontzertua emango du santamaña jaien barruan. Hiru hamarkadatik gorako ibilbidea duen taldeak gazteak eta helduak batuko ditu. Plazan, uztailaren 18an, 23:00etan.

UZTAILAK 20

GAZTETXOEN EGUNA

- 12:00 6. mailakoek eguneko txupina botako dute udaletxeko balkoitik.
- 12:05 Puzgarriak, ur jolasak eta tailerrak, plazan.
- 15:00 Gaztetxoek bazkaria.
- Ondoren, izozkia.
- 16:30 Bits festa.
- 18:30 Merienda.
- 19:00 DJ Raizti.

UZTAILAK 22

SOKA DANTZA

- 09:30 Vicinay-ko adarra eta su kanpaiak.
- 18:00 'Kanpaien oroimena, herriaren arnasa', Andikonako plazan.
- Lore eskaintza, Andikonako iturrian.
- Karrilloi eta kanpai kontzertu parte hartzailea.
- 20:00 Soka dantza, Plaza Nagusian.
- 21:00 'Haritik tiraka' antzezlan Andikona plazan.

UZTAILAK 24

- 17:00 Tute, mus eta briska txapelketak.
- 19:30 V. Otxandioko Goxua Txapelketaren finala, Josetxu, Motxile eta Kaitoren omenez.
- 22:00 Kuadrillen arteko play back-a, plazan.

UZTAILAK 25

SAN MARTIN EGUNA

- 12:00 Otxandioko bandaren kalejira.
- 12:15 Otxandioko Urbiribil dultzainero taldearen kalejira San Martinera.
- 12:30 Meza San Martineko basilizan.
- 14:00 San Martin paella txapelketa (mahai eta aulkien erreserba egiteko: uztailak 23, 08:00etatik 14:00etara bitartean, udaletxean bertan).
- 17:00 Ardoa Barrura txaranga.
- 23:00 Kontzertuak:
 - Nafarroa 1512
 - Linea Roja
 - Ondoren, DJ Xaukena Xauk.

UZTAILAK 26

AGUR SANTAMAÑAK

- 07:30 Diana eta kalejira.
- 08:00 Sokamuturra.
- 12:00 Meza santua.
- 13:00 Omenaldia 1936an bonbardaketan hildakoei, Andikonan.
- 13:45 Limonada plazan.
- 14:00 Otxandioko Bandaren emanaldia.
- 18:00 Herri kirolen ekitaldia plazan.
- 20:00 Joselu Anaiak erromeria.
- 00:00 Agur Santa Marina.

HONTZA EXTREM
[E] HONTZAID ADOBEA FARGA

Tel.: 633 468 947 / www.hontzaextrem.com

danoena

Plaza nagusia, 5
OTXANDIO
Tel.: 945 450 248

AXPE ESTANKOA

Okindegia
Loteria eta tabakoa

Plaza nagusia, 7
OTXANDIO
945 461 442

Kale eta bazterrak jai giroan murgiltzeko atzerako kontaketa hasi dute Otxandion

Tradizio handiko ekintzek, musikak eta kirolak bat egingo dute santamañetan

Aitziber Basauri OTXANDIO

Otxandion ate joka dituzte santamañak. Eta, motorrak berotzen hasteko, Gazte Eguna ospatuko dute bihar. Herriko gazteek eguerdian jaurtitako txupinazoagaz hasiko dute eguna. Bazkaltzeko elkartuko dira eguerdian, eta olinpiadak hasiko dituzte 18:00etan. Gauerako, eguna borobiltzeko, kontzertuak antolatu dituzte; Ganibet eta Laino Beltza igoko dira oholtzara, eta DJ Katu Gorriren eta DJ Agata Lagataren musikak osatuko du gaua.

Udaletxeko balkoitik jaurtiriko txupinagaz batera leher-tuko da jai giroa herriko kale eta bazterretan, uztailearen 17an. Jaiek iraungo duten aste bietan zehar, tradizio handiko ekitaldiek ez dute hutsik egingo. Besteak beste, herriko Urduri dantza taldearen saioa, Oihan-



Udaletxeko balkoitik botatako txupinazoak eta danborradak hasiko dituzte jaiak.

di abesbatzak abesturiko Salve Regina, umeentzako jolasak eta puzgarriak, kuadrillen arteko play-backa, herriko bandaren kalejira, sokamuturra eta San Martineko paella txapelketa izango dituzte hurrengo egune-

tan Otxandion. Baita 1936ko bonbardaketan hildakoak gogoratzeko omenaldia ere.

Bonbardaketatik 90 urte

Aurten 90 urte beteko dira Otxandio bonbardatu zutela.

Errioxako base militarretik zetozen Breguet XIX hegazkin bik Andikona plaza bonbardatu zuten 09:30ean. Gerra zibilaren lehenengo bonbardaketatzat hartzen da Otxandiokoa; 61 hildako eta zauritu ugari eragin zituen. Uztailearen 22an izan ziren gertaera latz haiek, herrian Santamaña jaiak ospatzen zebiltzala. Bonbardaketan hildakoak gogoratzeko urtero uztailearen 26an egiten den omenaldiagaz gainera, ekitaldi berezia egingo dute uztailearen 22an, Andikona plazan: Vicinay-ko adarra eta su kanpaiak joko dituzte egun horretan, 09:30ean. Arratsalderako *Kanpaien oroimena*, *herriaren arnasa* ekitaldia prestatu dute; Andikona plazan izango da. Lore eskaintza eta karrilloi eta kanpai kontzertu parte hartzailea egingo dituzte, jai batzordeak azaldu duenez. Emakumeen soka-dantzak eta Ane Gebarak sorturiko *Haritik tiraka* antzezlanak borobilduko dute eguna.

Trikiti eta rock doinuak

Jai batzordeak musika eskaintza zabalagaz osatu du egitaraua. Gozategi, Altxa Porru plaza taldea

eta Korrontzi igoko dira oholtzara lehenengo asteburuan. Bigarrenegun Nafarroa 1512 eta Linea Roja taldeen rock doinuek giro-tuko dute gaua. Xaukena Xau-ek zabalduko du parrandarako grina ordu txikietara arte.

Herri kirolen erakustaldiaz eta goi mailako pilotari profesionalen arteko esku pilota partiduaz gozatzeko aukera ere egongo da santamañetan, ohiko *Agur Santa Marina* abestuz jaiak agurtu bitartean.

Gaztetxoan Eguna

Etxeko txikien eguna uztailearen 20a izango da. Urteroko ohiturari jarraituta, 6. mailakoak udaletxeko balkoira igoko dira eguneko txupina botatzeko. Jarraian, puzgarriak, ur jolasak eta tailerrak izango dituzte, plazan. 15:00etan, bazkaltzeko elkartuko dira. Jai batzordeak bits festa eta merienda prestatu ditu arratsalderako. Eta, eguna amaitzeko, DJ Raiztik ipiniriko musikagaz dantzatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Jaiak irauten duten bitartean, eraso sexistei aurre egiteko protokoloa aktibatuta egongo da.

RUIZ DE INFANTE
ERAIKUNTZAK
eta
BIRGAITZEAK

OTXANDIO

Tel: 670 975 722

j.a.ruizdeinfante@gmail.com



AMENABAR S.A. | Otxandio- Olaeta Errepidea z/g
01165 - Olaeta (Araba) Tel. +34 945 450 050
comercial@amenabar.net
www.amenabar.net

Herriak mugitzen gaitu.


ULMA



1958tik

ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Gora
Otxandioko
Jaiak!!



"Txupinazoa botatzea aukera bikaina da hiru urteko proiektuari amaiera emateko"

MIREN CAMPO ETA LURDES BENGEOA 50 URTE ESKOLA EUSKALDUNTZEN TALDEKO KIDEAK

Aitziber Basauri OTXANDIO

Otxandion 50 urte bete dira euskaraz irakasten hasi zirela. Lurdes Bengoa, Miren Campo, Lurdes Uribarri, Amaia Lasuen, Jon Larrinaga eta Mari Tere Larrinaga bidea hasi zuen Andresa Landa ikastolako irakasle izan ziren. Aurten, haiek izango dute jaietako pregoia botatzeko ardurak. Bengoak eta Campok erantzun diete ANBOTOren galderei.

Zelan hartu duzue pregoia botatzeko gonbitea?

Lurdes Bengoa: Pozik. Hiru urteko proiektuari amaiera emateko aukera bikaina da. Oso gustura ibili gara, materiala bildu eta aztertzen, argazkiak digitalizatzen... Zeozer xumea egitea zen gure asmoa, baina 1976an haur eskola sortu zenetik gaur arteko ibilbidea ikustea merezi zuela ikusi genuen. Orduan, hainbat eragile (udala,

eskola, guraso elkartea...) inplikatu zen. Jaitxo bat izan behar zuena ekitaldi sorta bihurtu zen: dokumentala sortzea, herri bazkaria, diapositibak digitalizatu eta muntaia egitea, erakusketa...

Miren Campo: Lan horretan orain irakaskuntzan dabilen gure ikasle ohiekin elkartu ginen, eta konturatu ginen guk genituen erronketariko batzuk oraindino hor daudela, egoera desberdina den arren: adibidez, euskararen egoera eta aniztasuna (kultura, hizkuntza, erlijioa...). Andresa Landa Fundazioaren bitartez sorturiko herri proiektua izan zen ikastola, eta askotariko herritarrek ordaindutako kuoten bitartez egin zuen aurrera.

Zelan gogoratzen dituzue urte haiek?

L.B.: Andresa Landako ikastola haur eskola zen, apurka-apurka bidea egiten joan zen herri proiektu bat. Dena umeen intereseta-

ra bideratuta zegoen, eta momentuan egin behar genuen dena. Geroago, ikastola Mainondo eskolagaz batu zen, 1982an eta 1983an izandako prozesuagaz. Ikastolako irakasleak Mainondora pasatu ginen, oposaketetan plaza lortu eta gero.

M.C.: Iraultza egin behar genuen oroitzapena dut. Esperimentatu egin genuen, eta trebatu ere egin ginen. Orain, gaur egungo Mainondo eskola ezagutzeko aukera izan dugu. Irakaskuntzan hausnartu eta berriro beharra dago, erronkak bideratu. Eta klaustroa finkoa izatea oso garrantzitsua da. Urtero aldatzen bada, gatz da inplikatzeko, gura izanda ere.

Pregoa prest duzue?

M.C.: Bai. Herri proiektu hura gogora ekarriko dugu, eta nabarmendu zein garrantzitsua den eskola eta hezkuntza komunitatea. Herri oso bat eus-



Andresa Landako irakasle ohiak. Bengoa eta Campo, eskuman. 50 URTE ESKOLA EUSKALDUNTZEN

kararen alde badago, aurrera egiteko gai izango da. Honela amaituko dugu pregoia: 'Gora irakasleak eta gora hezkuntza komunitarioa!'. Dena dela, Mainondo eskolako zuzendaritza-koak, guraso elkartekoak eta eskola kontseilukoak ere egongo dira gugaz. Hezkuntza komunitate osoa irudikatuko dugu.

Zelan bizi dituzue zuek santamañak?

L.B.: Gogotsu hartzen ditut. Gainera, herritik kanpora bizi diren otxandiarrek jaietan herrira etortzeko ohitura dute. *Agur Santa Marina* ekitaldian

jende mordo batzen da. Herriaren parte izatearen sentimendu hori badago hemen.

M.C.: Bai, herriak asko parte hartzen du antolaturiko ekintzetan. Pozik bizi ditut jaiak, baina lan askogaz (barrez).

Nabarmenduko zenuketen ekitaldia?

L.B.: *Agur Santa Marina*.

M.C.: Gure aitita bonbardaketan hil zen, Andikona plazan, eta orduan hildakoak gogoratzeko omenaldia familia osoa batzeko eguna izan dugu beti, gogoratzeko eguna. Jende asko batzen du eta hunkigarria izaten da.

ABEL PINTURAK

ABEL AXPE ACERA
Elizondo Plaza, 5
ARRAZOLA - ATXONDO
658 721 845

www.crisangarden.com

LOREZAINZA - ZERBITZUAK - INGURUMENA
Soropil artifiziala hornitzea eta instalatzea
Tel.: 610 400 414 / 607 412 773

E.S. Otxandio · E.S. Izurtza

Ondo pasa Otxandioko jaietan!

📍 BI-623, 48213 IZURTZA 📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

OTXANDIO
IGERILEKUETAKO TABERNA

Mainondo auzoa, 2 OTXANDIO
650 541 677



ZORNOTZAKO JAIAK 2026



Amorebieta-Etxanoko
Jaiak 2026

Uztailak
15-27



ZORNOTZAKO JAIK 2026

UZTAILAK 15

- **20:00** Pregoia, txupinazoa eta Zorhontzaren kalejira, Ondalan, Bergarako BEL, Bermeoko KIETB, Txantreako eta Amorebieta-Etxanoko Udazken Barria, eta Etxanoko erraldoi eta buruhandien konpartsak, Udazken txistulariak eta gaiteroak, Zornotzako Musika Banda eta Triki Plurekin Herriko plazan.
- **21:00** Kaleko Musika Harrison, Euskal Herria plazan.
· *Panda's Cover Gang*
- **21:30** Kontzertua Zelaia parkea.
· *Txapela Brava*
- **22:00** Kontzertua Zubiondon.
· *Süne*

UZTAILAK 16

- **12:00** KARMEN EGUNeko JAIA. Meza, bertsolariak, Udabari dantza taldea, eta euskal erromeria Triki Plu taldearekin Larrean.
- **OSTEAN, Herri Kirolak** Larreako landetan.
- **11:00** Udazken taldearen kalejira Herriitik zehar.
- **17:00** Gaztetxoaren arteko txallengea 11-15 urte. Talo proba. Gernika plazan.
- **18:00** TALO TAILERRA +8 urte. Gernika plazan.
- **18:00** Gizonezkoen pilota partida profesionalak Caixabank B torneoa. Zabala-Morgaetxebarria vs Amiano-Gabirondo Laso-Albisu vs Artola-Mariezkurrena. Amorebieta IV frontoian.
Ant: Erdu Pilotan eta Lagun Onak pilota elkarte.
- **18:00** Gazteen arteko txallengea ginkana Zubiondo plazan.
Ant: Zornotzako Gazteak.
- **20:00** Gaztedi Berria fanfarrea Zezilia Gallartzagoitia (Barruko Plazan)
- **21:00** Erromeria. Zelaia parkean.

UZTAILAK 17

- **11:00-14:00/17:00-19:00** Puzgarriak eta joko inklusibo eta irisgarriak Ogenbarrenan. *Euria eginez gero Gure kirolak frontoian.
- **13:00** Gazteen kalejira Herriitik zehar.
Ant: Zornotzako Gazteak
- **15:00** Gazteen arteko bazkaria eta bazkalostea Zelaia parkean.
*Ant: Zornotzako Gazteak. *Euria eginez gero Amorebieta IV frontoian*
- **18:00** Kaleko musika Luis Urrengoetxean.
· *Ostikda*
Ant/Org: Zornotzako Gazteak
- **19:00** Andra Mari plaza
· *Salseo jaiak show*
· *DJ Cris Orube & Jess on Decks*
- **20:30** Txistularien XXVI. kontzertua. Artista gonbidatua Iñaki Ortiz de Villalba (Betagarri) Zelaia parkean.
Ant: Udazken txistu taldea.
- **22:30** Kontzertua Zubiondo plazan.
· *Latzen*

UZTAILAK 18

- **10:00** Basket 3x3 Zubiondo parkean.
Ant: Zornotza Saskibalo taldea.
- **10:30** Marmitako lehiaketa Herriitik zehar.
- **11:00** Umeentzako bolo txapelketa Gure Kirolak bolatokia
Ant: Club bolos Zornotza.
- **12:30** Zorhontza ibiltaria Triki Piu eta Areatzako Erraldoiekin Herriitik zehar.
- **15:00** Marmitako txapelketa. Sari banaketa. Zubiondo plazan.
- **15:30** DJ Rednal Zubiondo plazan.
- **15:30** Karaoke ibiltaria. Zelaia parkean/Euskal Herria plazan/Harrison parkean.
- **15:30** Disko festa ibiltaria Bayo Show Arraibi plazan/San Juan Kalean.
- **15:30** Karaoke ibiltaria sound-4 Ogenbarrenan.
- **18:00** DJ FARDY Gernika plazan.
- **19:00** Kontzertua Zubiondo plazan.
· *Heitxi*



SÜNE

ZORNOTZA Kontzertua Josune Arakistain 'Süne' oholta gainera igoko da Zornotzako Karmen jaietan. Zubiondon, uztailaren 15ean, 22:00etan.

- **21:00** Karmenetako XIV. bolo txapelketa Gure Kirolak bolatokia.
Ant: Club bolos Zornotza
- **21:30** Kontzertua Zubiondo plazan.
· *Eztandap*
- **22:30** Orkestra Zelaia parkean.
· *En Esenzia*
- **23:30** Kontzertua Zubiondo plazan.
· *Jonkass*

UZTAILAK 19

- **10:00** XLIV. Xake txapelketa. Agustín Zamakona Memoriala Herriko plazan.
Ant: Club de ajedrez Zornotza
- **10:00** Motorren topaketa Gernika plazan.
Ant: Lanzero Classic
- **11:00** Amorebieta-Etxanoko XV. Umeen jai lasterketa Zubiondo parkean.
Ant: Zornotzako korrikalariak
- **11:00** Euskal herriko artzai txakurren txapelketa Jauregibarria parkean. *Ant: Arxate elkarte*
- **12:00** Zornotzagol. Futbol 7 jaietako txapelketa (mistoa) Larreako Futbol Zelaian.
Lag: Ikastxiki
- **16:00** Gazteen arteko txallengea / Piragua jaitiera

- Ibaizabal errekan.
Ant: Zornotzako Gazteak
- **17:00** Gure Kirolak. Bizikleta Eguna Zubiondo parkean.
Ant: Urgozo iturria txirindulari elkarte.
- **18:00-21:00** Txiki txef +6 urte Andra Mari plazan.
- **20:00** Kantakatil Kantuan Luis Urrengoetxean.
- **22:00** Kontzertua Zubiondo plazan.
· *Nino Bravori omenaldia*
· *Zornotzako musika banda*
· *Artista gonbidatua: Serafin Zubiri*

UZTAILAK 20

- **16:00** Zornotzagol. Futbol 7 jaietako txapelketa (mistoa) Larreako Futbol Zelaian.
Lag: /kastxiki
- **17:00-20:00** Ping pong Zezilia Gallartzagoitian.
- **18:30** Mus txapelketa. Zelaia parkean. *Ant: Belatxieta elkarte Izena emateko: 18.00*
- **20:00** Antzerkia gaztelaraz. "Al fin y al cabo" El Gran Rufus Gernika plazan.
**Euria eginez gero Gure Kirolak frontoian.*
Lag: Eusko Jaurlaritza
- **20:00** Kontzertu akustikoa Zubiondo parkean.
· *Iluntzean*

Ant: Laixie txosna elkarte
• **22:00** Zelaia parkean.
· *Pantx Records*
Ant: Laixie txosna elkarte

UZTAILAK 21

- **12:00** Umeentzako tailerra. Perkusioa/Batukada Zelaia zentroan.
- **13:00** Karropotea Herriitik zehar, Harrison kaletik abiatuta.
Ant: Laixie txosna elkarte.
- **15:00** Txosnarien bazkaria Zubiondo parkean.
Ant: Laixie txosna elkarte.
- **16:00** Zornotzagol. Futbol 7 jaietako txapelketa (mistoa) Larreako Futbol Zelaian.
Lag: Ikastxiki
- **16:30** Kontzertua Zubiondo parkean.
· *Eider eta Alain*
Ant: Laixie txosna elkarte
- **17:30** Kontzertua Zubiondo parkean.
· *Piper Txarrak*
Ant: Laixie txosna elkarte
- **17:30** Akrobazien erakustaldia eta tailerra. Sergi Sarmiento Serflips Herriko plazan.
**Euria eginez gero Gure Kirolak frontoian*
- **19:30** Porrurik Bez, Elektrotxaranga Zubiondo parkean.
Ant: Laixie txosna elkarte
- **22:30** Kontzertua Zubiondo parkean.
· *Etxeparra eta Reketabe*
Ant: Laixie txosna elkarte

UZTAILAK 22

- **12:00** Umeentzako tailerra. Perkusioa/Batukada Zelaia zentroan.
- **17:00** Gaztetxoaren arteko txallengea 11-15 urte. Herri kirolak Zubiondo plazan.
- **18:00** Gazteen arteko txallengea. Herri Kirolak Zubiondo plazan.
Ant: Zornotzako Gazteak
- **22:30** Antzerkia euskaraz. "Kodizia Late Night" Barsanti Herriko plazan.
**Euria eginez gero Gure Kirolak frontoian*
Lag: Eusko Jaurlaritza

UZTAILAK 23

- Barraken prezio berezia
- **11:00-14:00/16:00-18:00** Puzgarriak eta Joko inklusibo eta irisgarriak. Ogenbarrenan.

*Euria bada Gure Kirolak frontoian.

- **12:00 Umeentzako tailerra.** Perkusioa/batukada Zelaieta zentroan.
- **17:30 Herriko Txapelketaren finalak. (emakumeak eta gizonak)** Amorebieta IV. Frontoian. Ant: Erdu Pilotan
- **17:30 Gaztetxoaren arteko txallengea 11-15 urte.** Karaoke lehiaketa Zelaieta parkean.
- **19:30 Gazteen arteko txallengea.** Play back lehiaketa Zelaieta parkean. Ant: Zornotzako Gazteak
- **20:00 Dantza** Herriko plazan. · "IOI" Haatik Dantza Lag: Eusko Jauraritzza

UZTAILAK 24

- **17:30 Umeen tanberrada** San Pedro, Luis Urrengoetxea, Larrabide, Karmen, Gregorio Mendibil, San Juan, San Miguel, Herriko plazan. Ant: Zornotzako Musika Banda
- **19:00 90. Hamarkadako musika** Gernika plazan. · DJ KUL
- **21:30 Tanberrada** Ibilbidea: Gudari, Ibaizabal, Nafarroa, San

Juan (Jose Antonio Agirreraino), San Miguel, Herriko plaza.

- Ant: Zornotzako Musika Banda
- **23:00 Kontzertua** Zubiondo plazan. · El Drogas
 - **23:30 Kontzertua** Zelaieta parkean. · Neomak

UZTAILAK 25

- **GOIZEAN Baserritarren Azoka** Ibaizabal aparkalekuan Ant: Enba / Lag: BBK
- **Artisauen Azoka** Ant: Aukea elkarteak
- **Aitite-Amamen Jaia** Amorebieta IV frontoia
- **14:15 Pertsona nagusien bazkaria.** Izena emateko: Nafarroa zentroa. Ateen irekiera: 13:45
- **14:15 Udabarri Dantza Taldea**
- **15:00 Triki Piu**
- **16:00 Dj Koldo**
- **10:00** Herritik Zehar **Kittu Maratoia, Tabernaz Taberna** 10:00 Larrea auzoa 10:40 Gudari kalea 11:00 Zelaieta parkea - Harrison plaza 11:30 Ixer - San Pedro 12:15 Zezilia Gallartzagotia

- 13:15 Urbano Larruzea - San Migel
- 13:30 Gregorio Mendibil - San Juan
- 14:00 San Migel - Zezilia Gallartzagotia
- 14:30 Andra Mari plaza
- 15:15 Gernika plaza
- 16:15 Jauregibarria parkea
- 16:30 Jauregizahar
- 16:45 Andrandi
- 17:15 Arraibi plaza - San Juan
- 17:30 Konbenio plaza - Kalbario plaza
- 18:00 Sabino Arana
- 18:30 Zubikurtze - Zubipunte
- 19:00 Ogenbarrena
- 20:00 Txiki Otaegi - Luis Urrengoetxea
- **12:00 Musika kalean** Zezilia Gallartzagotia/Abasolo Apezpiku/ Ibaizabal kalean. · Triki Piu
- **16:00 Amorebieta-Etxanoko VIII. Duatloi Txikia** Zubiondo parkean. Ant: Amorebieta-Etxanoko Triatloi taldea
- **19:00 Euskal Erromeria** Zelaieta parkean. · Udabarri 60 urte
- **22:15 Su artifizialak*** Jauregibarrian.
- **23:00 Kontzertua** Zubiondo plaza · Chenoa
- **23:15 Kontzertua** Zelaieta parkean. · Ruper Ordorika

UZTAILAK 26

- **10:00 Kotxeen topaketa** Ogenbarrenan. Ant: Lanzero Classic
- **11:00 Ontzi-modelismoaren erakustaldia** Jauregibarrian. Ant: Bilbo Model Club
- **11:00 Arku tiroa** Jauregibarrian. Ant: Ostadar
- **11:30-14:00 Txitatoki zirkus Umeentzako zirkuz azoka ikuskizuna** Ogenbarrenan. *Euria eginez gero Gure Kirolak frontoian
- **18:00 Emakumenezkoen elite pilota partidak Udako Master Laboral Kutxa Torneoa** Amorebieta IV frontoian.
- **19:30 Zornotza Aniztasun Kalejira** Geldialdiak: Zelaieta parkea, Euskal Herria plaza, Kalbario, herriko plaza. **Gonbidatuak: Batabatukada, Elen's River Dixie Band** Ant: Nafarroa zentroa, Udazken Txistulariak, Triki Piu, Lornotzako pentsionistak, Ongi Etorri erre-fuxiatuak, Juravca, ZABE, Novisi elkarteak,...

- **21:00 Bertsolariak Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio Oihana Bartra Sustrai Colina** Gai jartzailea: Zornotzako Eta Abar Bertso Eskola Zelaieta parkean.

UZTAILAK 27

MOZORRO EGUNA HISTORIA

- **12:00 Gaztetxoaren arteko txallengea 11-15 urte WIPE OUT** Zubiondo plazan. *Euria eginez gero Gure Kirolak frontoian
- **18:00 Umeentzako tailerra**
- **Perkusioa/Batukada** Zelaieta zentroan.
- **19:00 Gazteen txallengeko mozorro desfilea** Nafarroa kalea - San Juan kalea - San Miguel kalea - Herriko plaza Ant: Zornotzako Gazteak
- **OSTEAN Zorhontzaren agurra Umeen batukada, Zornotzako Musika Banda** Herriko plazan.
- **21:00 Kaleko musika** Euskal Herria plazan. · Zo-Zongó 'Rockalean'
- **21:00 Jaiak txaranga.** Herriko plaza - Arraibi plazan.





Koldo Bilbao zinegotzia eta txupinazoa jaurtiko duten kuadrilletako ordezkariak.



Iazko marmitako lehiaketako irudi bat.

Beste urte batez, herritarrak prest daude Zornotza marea urdin bihurtzeko

Uztailaren 15ean hasiko dituzte Karmen jaiak Zornotzan; 27ra bitartean, zuzeneko musikaren eskaintza oparoa egongo da, eta baita lehiaketa gastronomikoak eta adinekoentzako ekitaldiez gozatzeko aukera ere

A. M. ZORNOTZA

Beste urte batez, heldu dira Karmengo jaiak eta heldu zaie Zorhontza eta enparauei herriko kale nagusiak zeharkatzeko hitzordua. Aurten, Jai Demokratikoen 50. urteurrena dela eta, garai hartako kuadrilletako ordezkarien pregoiagaz hasiko dituzte jaiak. 70eko hamarkada amaieran jai herrikoen alde egindako lanaren aitortza izango da ekitaldia. Ondoren, kolore urdinak Zornotza guztia hartuko du. Ainhoa Salte-rain Zornotzako alkateak ere hala iragarri du: "Pozik egoteko eta

gozatzeko egunak dira". Lehengo garai horretako kuadrillak izango dira bertan; besteak beste, Akarrak, Azantz, Emaztortena, Gau Txori, Hawaiianos, Soroak eta Mejicanos.

Beste urte batez, musika izango da Zornotzako Karmenetako zutabe nagusietariko bat. Uztailaren 17an, Latzen taldeak kontzertua emango du; metal giroan izandako itzulerarik handienetariko bat da eurena. Biharamunean, etxeko uzta izango da protagonista. Heitxi eta Jonkass artista zornotzarrek kontzertua emango dute.

Asteburua borobiltzeko, Zornotzako Musika Bandak eta Serafin Zubirik Nino Bravori eskainitako omenaldiaz gozatu ahal izango da. Uztailaren 24an, musikazaleek Euskal Herriko proposamen bi izango dituzte. El Drogas artista mitikoak eta Neomak laukoteak kontzertua emango dute. 25ean Chenoaren eta Ruper Ordorikaren kontzertuen txanda izango da. Eta uztailaren 26an bertso saioa izango da Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Oihana Bartra eta Sustrai Colina bertsolariekin.

Gastronomia protagonista

Zornotzako Karmenak ezin dira ulertu gastronomia lehiaketarik barik. Horrela, uztailaren 18an marmitako lehiaketa jendetsuak kaleak beteko ditu. Lehiaketa hau erakusleihu aparta izaten da sukaldaririk trebeenek euren dohainak erakusteko.

Bestalde, Santiago egunean, uztailak 25, Baserritarren eta Artisauen Azoka egingo dute Ibaizabal aparkalekuan. Eta egun horretan bertan, Aitite eta Amamen Jaia ere egingo dute Amorebieta IV frontoian.

Ekimen honegaz, belaunaldien arteko hartu-emana estutu gura dute, Lua Buronek jaietako kartelean egin duen moduan. Zornotzarrak uztailaren 27ra arte egongo dira festa giroan murgilduta.

Zornotzako uzta musikalaz gozatzeko aukera egongo da 18an, Heitxigaz eta Jonkasegaz



Adin guztientzako moduko egitaraua prestatu dute Zornotzan.

ekin
thinking together

BROTXAKETAREN ETA
IJEZKETAREN ALORREKO
KIDE GLOBALA

www.ekin.es

"Orduko jaiak eta egungoak desberdinak dira, baina esentzia mantentzen dute"

LUA BURON ZULOAGA JAIETAKO KARTELAREN EGILEA

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Lua Buron Zuloaga (Zornotza, 2000) zornotzarrak txikitatik marrazten du, eta urteekin eta prestakuntzagaz afizioa ofizio bihurtu gura du. Karmenetako kartel iragarlea bide horretan egin gura duen urratsetariko bat da. Emaitzagaz ez ezik, prozesuan bizitakoagaz ere pozik dago. "Lehenengo aldia da honelako talde handiagaz lan egiten dudana", argitu du.

Zelan jaso zenuen kartela egiteko proposamena?

Udaletik deitu zidaten. Ea adineko jendeagaz elkarlanean jaietako kartela egiteko prest egongo nintzen galdetu zidaten. Baietz esan nien.

Zelakoa izan da elkarlana adinekoekin?

Modu horretan lan egin dudan lehenengo aldia izan da; orain arte beti egin izan dut neuk ba-

karrik, neure ideiekin. Nafarroa zentroko erabiltzaileekin elkarlanean egin nuen sortze prozesua; bertara joan nintzen, eurak eza-gutzerara eta eurekin berba egitera. Jaiak lehen zelan bizi zituzten kontatu zidaten, zelan gogoratzen dituzten, zelan gogoratzen duten euren gaztaroa, eta jaiak zein elementu, kolore eta momentugaz lotzen dituzten. Eurek esandako dena apuntatu, eta hortik abiatuta kartelean ideia guztiak bazten ahalegindu naiz.

Badute antzekotasunik eurek kontatutako jaiak eta zuk bizi dituzunek?

"Jaiak lagunekin bizitzea gustatzen zait gehien; txupinazoa da nire egunik gogokoena"

Egia esateko, bai, badute antza. Beharbada, beste musika bategaz lotzen dituzte jaiak, baina, azken finean, musikagaz eta dantzan ospatzen zituzten eurek ere. Txupinazoko kolore urdina, hain Zornotzako jaietako ere hor dago. Desberdin bizi zituzten jaiak, baina esentzian antzekoak dira orduko jaiak eta gaur egungoak.

Sortzerakoan, izan duzu horrelako beste esperientziarik?

Ez dakit zein puntutaraino duen antza, baina iaz Heitxi abeslariak diskoa kaleratu zuen eta elkarlanean aritu ginen hura ilustratzeko. Dena dela, elkarlana antzekoa izan arren, aurretik ez dut lan egin horrelako talde handi bategaz.

Txikitatik izan duzu marrazteko zaletasuna. Lanerako gurago duzu eskuz marraztu ala modu digitalean?

Bietara gustatzen zait. Eskuz



Lua Buron, jaietako kartela eskuetan duela.

marraztea asko gustatzen zait, baina lan profesionalagoak egiterakoan gehiago erabiltzen dut iPada. Zirriborroa arkatzez egiten dut, baina gero iPadean marrazten dut. Baina, tira, prozesua antzekoa da. Ordenagailuan, saguagaz beharbada galdu egingo da apur bat, baina arkatz digitalagaz antzeko sententzia da. Horixe da gehien gustatzen zaidan modua.

Zelan bizi dituzu Karmenak?

Jaietan lagunekin egotea gustatzen zait gehin. Beharbada txu-

pinazoa dut gogokoan, goizetik denok batera gabiltzalako eta elkarregaz bazkaltzen dugulako. Gero datoz txupinazoa, kontzertuak, parranda...

Ilusioa egiten dizu zure irudiak jaiak iragartzeak?

Ilusio handia. Jendeak kalean ezagutu eta zoriondu egiten nau kartelagaitik. Gusatu zaiela esan didate. Kuadrillako lagun batek, Heitxik, kontzertua emango du aurtengo jaietan, eta horrek oraindino bereziago egingo ditu aurtengo jaiak.

IMQ Igurco

Arreta profesionala eta hurbila Amorebietan



IMQ Igurco Orue
Bº San Miguel, s/n
48340 Amorebieta-Etxano
94 630 05 50



IMQ Igurco Azkuna
Jose Antonio Aguirre, 2
48340 Amorebieta-Etxano
94 630 99 55



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA
Otik 18 urtera arte
ONDO PASA JAIETAN!
Larrea Auzoa z/g- 48340 Amorebieta-Etxano
946732950 | zornotza@ikastola.eus | www.andramarizornotzakoikastola.eus



"800.000 pezeta batu genituen 1976ko jaietarako, denek lagundu nahi zuten"

LOLIN GOITIANDIA ETA ESTEPAN IRIONDO PREGOILARIETARIKO BI

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Zornotzako zenbait kuadrillak antolatu zituzten demokrazia-ko lehenengo jaiak. Kuadrillak kideetarako bi Lolin Goitandia eta Estepan Iriondo dira. Karmenak ospatzeko gogoz jarraitzen dutela esan dute. Dei hori zabalduko dute pregoian ere.

Zelakoak izan ziren 1976ko Karmen jaiak?

Lolin Goitandia: Elkar ezagutzen genuen jendea ginen, herrikoak, eta jaiak antolatu eta ospatu gura genituen. Guk geuk horrela sortu genuen Gau Txori kuadrilla. Jai horiez berba egiteko, baina, aurreko urtean egin zen boikota aipatu behar da lehenengo. Jai haiek ez ziren ospatu, baina hortik batuago irten ginen.

Orduko jai haietan garrantzitsua izan zen Herriko taberna

antolatzen hasia. Egokitzen zitzaizkigun ekitaldiak antolatzen genituen; besteak beste, kontzertuak. Bien bitartean, beste kuadrilla batzuek ere beste ekitaldi batzuk antolatzen zituzten. Kuadrillen lehenengo desfilea ere guk antolatu genuen, pentsa! Bitxikeria legez, gaur egun mantentzen dugun berezitasun bat da denok emakumeak garela. Beharbada, gazte kuadrillen artean ere egongo da halakorik, baina 50 urte hauetan emakumezkoen kuadrilla bakarra izan gara jaietako desfilean.

Boikotaren ondoren, jendeak oraindino gogotsuago hartuko zituen lehenengo jai haiek.

L. G.: Bai, oso bereziak zirelako. Gainera, mundu guztiak bat egin zuen. Denak zeuden prest laguntzeko. Kontzertu bat antolatzeko, esaterako, musikariari deitu behar zitzaion, aulkiak ipini behar

ziren, barra bat ipini behar zen jan-edanerako, eta gero dena batu behar zen. Hori guzti hori ezingo genuke guk bakarrik egin. Gurasoak eta ingurukoak ere prest agertu ziren laguntzeko. Modu batera edo bestera, Zornotza osoak lagundu zigen.

Estepan Iriondo: Bai, alde batetik edo bestetik, bakoitzak bere ekarpena egiten zuen. Aldaketa *terriblea* izan zen, baina mundu guztiak konfiantza zuen bide onetik gindoazela. Dena bikain irten zen.

Zu zelan batu zinen jaien antolakuntzara?

E.I.: 1975eko boikotaren ondoren, alkateak bazekien arazo bat izango zuena 1976an jaiak antolatzeko. Bazekien berak antolatuz gero, berriro boikoteatuko zirena jaiak. Ez dakit zehatz zergaitik, baina ardura hori kuadrillei ematea erabaki zuen. Kuadrillen



Lolin Goitandia eta Estepan Iriondo.

ordezkaritza talde bat aukeratu zen, eta ni ekonomia kontuez arduratu nintzen, batez ere. Udalak diru bat emango zigula esan zigun, baina oso gutxi izan zen. Geu antolatu behar izan ginen, eta merkatari, tailer eta herri-tarrei eskatuta 800.000 pezeta inguru lortu genituen. Arrakasta itzela izan zen, eta, esan dugun moduan, zornotzar guztiek lagundu gura zuten!

Mende erdiaren ondoren, zelan bizi dituzue jaiak gaur egun?

L. G.: Nik oraindino ere festa ispiritua dut. Adibidez, aniztasun

kalejiran parte hartzen dut, eta, ikusten dudanean, harro esaten dut: 'Ostras, lehenengo desfilea geurea izan zen!'. Danborrada ere geuk berreskuratu genuen, eta niretzat oso garrantzitsua da hori. Lehenengo danborrada hartan, emakumeok ere danborradan parte hartzea proposatu genuen, udalak kantinera izateko aukera baino ez zigun ematen eta. Guk ezetz, guk ere danborragaz parte hartu gura genuela. Tematu egin ginen eta irabazi egin genuen. Bataila bat irabaztearen modukoa izan zen!

ASEGURUOK
LAUROK
ZORNOTZA S.L.

Mota guztietako aseguruak

Norbere neurria egokituta, etorri bisitatzeraz!

Kalea, Zezilia Gallartzagaitia
Kalea, 11, 48340
Tel: 946 308 875
653 545 543
Amorebieta-Etxano, Bizkaia

kontsumo taldea
iraunkor
amorebieta-etxano

kontsumo taldea
*bertoko elikadura
*bermatua
*ekologikoa

Egin bazkide

S. Juan, 3 // 48340-AMOREBIETA-ETXANO

648646685 - www.iraunkor.eus

URTZA
TABERNA

Tel.: 94 673 15 57
Luis Urrengoetxea Hiribidea, 11
Amorebieta-Etxano

XBERJ
taberna

Zezenia Gallartzagaitia, 9
Tel.: 946 181 758

50 urte
AEK
Euskal Herria
muskuluz

**GORA KARMENAK
ETA SANTANATXU**

Irailetik aurrera,
ikasi (aprende) euskara
Zornotzako AEK euskaltegian.

San Pedro 3, behea
zornotza@ae.eus · 607 15 19 17

AGENDA

BARIKUA 10

- **ABADIÑO Sankristobalak**
Meza, 11:00etan.
Abadiñoko dantzariak 'Taldea Batuak', 12:00etan.
Gazta, ogia eta ardoa bananduko dituzte, 13:00etan.
Ardo kata Launaren eskutik, 19:00etan.
Pelma & Luis selektorak, 20:00etan.
Kontzertuak: Legez Kanpo + Ohil + Maniaks, 22:00etan.
Mendiolan.
- **DURANGO Durangaldeko Artisten Elkarteko kartelak.** Erakusketa. Ezkurdi erakustaretoan, abuztuaren 2ra bitartean.
- **ELORRIO Euskal Barrok Ensemble** Antzinako musika emanaldia. Lariz Jauregian (euria eginez gero, Arriola antzokian), 20:00etan.
- **IURRETA Sankristobalak**
Meza, 19:00etan. Jarraian, sardinak, gozokiak eta edariak, trikitilariak girotuta. Amezketako eskolan.

ZAPATUA 11

- **ABADIÑO Sankristobalak**
Umeentzako herri kirolak Badaiotz Kirol Taldearen eskutik, 12:00etan.
Maleta siku, 14:00etan.
ZtandaP bakarrizketa, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai, 17:00etan.
Azoka Eixu elkartearen eskutik, 17:00etan.
Tortilla Txapelketa, 19:00etan.
Altxa Porru erromeria, 22:00etan. Mendiolan.

- **ELORRIO Ruper Ordorika**
Kontzertua. Lariz Jauregian (euria eginez gero Arriola antzokian), 20:00etan.
- **IURRETA Sankristobalak**
Herri bazkaria, 15:00etan (izena emateko jarri hartu-emanetan jai batzordeagaz). Ondoren, trikitilariak. Amezketako eskolan.
- **ZALDIBAR Zaldú Trail** mendi lasterketa. Lasterketa luzea 09:30ean, laburra 09:45ean.

DOMEKA 12

- **ABADIÑO Sankristobalak**
Alluitz dantza taldea, 12:00etan.
Ugasio eta bolo txapelketa, 13:00etan.
Errifen zozketa eta Donien Atxa bota, 14:00etan. Mendiolan.
- **ELORRIO Momi Maiga**
Kontzertua. Lariz Jauregian, 19:00etan (euria eginez gero, Arriola antzokian), 20:00etan).
- **MAÑARIA Plater-tiro txapelketa** Mugarra Ateneoak antolatuta. Garaitorreko landan, 10:00etan.

EGUAZTENA 15

- **ATXONDO 'Mute'** Orain-Bi konpainiaren ikuskizuna. Apatako plazan, 20:00etan.
- **DURANGO Joko libre eta aldeberekoa** Larrasoloeta xake taldeagaz. Otamotzena auzogunean, 17:00etan.

EGUENA 16

- **ELORRIO Imanol Ituiño**
Magia ikuskizuna. Portalekuan, 20:30ean.

ZINEMA

ABADIÑO

SAN TROKAZ PLAZA

Soinujolearen semea
Barikua 10: 22:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Vaiana

Barikua 10: 18:00, 20:30.
Zapatua 11: 16:30, 19:00, 21:30.

Domeka 12: 17:00, 19:30.
Astelehena 13: 17:30, 20:15.

Martitzena 14: 17:30, 20:15.

Eguaztena 15: 19:00.

Haciendo amigos

Barikua 10: 18:00, 20:30.
Zapatua 11: 16:30, 19:00, 21:30.

Domeka 12: 17:00, 19:30.
Astelehena 13: 17:30, 20:15.

Martitzena 14: 17:30, 20:15.

Eguaztena 15: 19:00.

Normal

Zapatua 11: 20:30.
Domeka 12: 19:00, 21:30.
Astelehena 13: 19:30.

Martitzena 14: 20:15.
Eguaztena 15: 20:15.

Minions & Monsters (3D)

Barikua 10: 18:30.

Zapatua 11: 17:00.

Domeka 12: 17:30.

Astelehena 13: 18:00.

Martitzena 14: 18:00.

Eguaztena 15: 18:30.

TABIRA PARKEAN

Kayara. Inka gerlaria
Zapatua 11: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Haciendo amigos

Barikua 10: 20:00.

Zapatua 11: 17:00, 20:00.

Domeka 12: 17:00, 20:00.

Astelehena 13: 20:15.

GUARDIAKO BOTIKAK

UZTAILAK 10, BARIKUA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

UZTAILAK 11, ZAPATUA

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

UZTAILAK 12, DOMEKA

09:00-09:00

De Diego, Intxaurrondo 22. - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

UZTAILAK 13, ASTELEHENA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

UZTAILAK 14, MARTITZENA

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

UZTAILAK 15, EGUAZTENA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

UZTAILAK 16, EGUENA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak
ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK

GOZATU GOZOTEGIA



Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 401 400
f Gozatu Gozotegia
@ gozatugozotegia

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean gozatu gozotegiko **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurraekin batera.



MAÑARIA
Jose Luis
Zorionak, Jose Luis! Zelako pozik egon ginen zure urtegunien! Mosu handi bana emazte, seme-alaba, loba, ahizta eta familia danan partez!

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurra helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaitze Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.

San Kristobal eta Santa Maña
Uztailak 10, 11, 18
Jaiak 2026

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Oldarraldiak ugaritzen



MERTXE MUJICA
BALANZATEGI

Gauzak okerrera egingo ez dutela pentsatu, eta hara non beste bazter bat nahastu. Aitortu behar dut ez nuela espero unibertsitatera sartzeko proben auzia epaiketara heltzea. Hamaika ikusteko jaiok gara! Orain arte enplegu publikorako hizkuntza-eskakizunak izan dira gatazka; eta, ni neu, behintzat, erasoaldien jomuga lan munduan zegoelakoan nengoen, hezkuntza apartekoa zela pentsatuz. Ulergarria da azterketa bateko emaitzarekin ados egon ezik, berau berrikustea eskatzea. Baina, zergatik euskara? Izan dira beste ikasgai batzuetan zeroak, baita erreklamazioak ere. Orduan, ondoriozta daiteke, harrabotsa ondo pentsatuta dagoela euskara galtzaile ateratzeko, eta baliteke kasualitatea ez izatea hezkuntzaren esparruan gertatzea euskararen aurkako azken eraso. Izan ere, inori ez zaio oharkabea pasatzen hezkuntza dela eremu estratagiko garrantzitsua hizkuntzaren biziberritzean.

Halaber, gertakari honek auzi askoz sakonagoa dakar: gaur egungo hezkuntza sistemak ez du behar beste eta behar bezain ondo euskalduntzen, egungo euskara ereduak ez dutelako bermatzen ikasle guztiak euskaradunak izatea. Hausnartu beharra dago, euskaraz ikasi eta bizitzeko baliabideak jarri behar baitira hasierako mailetatik unibertsitateraino.

"Komertzio txikiak zerbitzu bat ematen du; horixe izan da gure apustua beti"

AITOR MURUA AGIRREBEITIA ETA EDURNE GALDONA MAKAZAGA ARRRAIN-SALTZAILEAK

A.B. ABADIÑO

Paradoxa batek elkartu zituen Edurne Galdona (Arroa, 1961) eta Aitor Murua (Abadiño, 1964). Itziarko Txitxarro diskotekan elkar ezagutu zuten, eta, hara non, hiru hamarkadatik gora eman dituzte arraina saltzen. Txitxarroa, jakina, eta beste arrain asko ere bai. Edurne arraindegiak abuztuaren 5ean itxiko ditu ateak behin betiko. Bikoteak esker oneko berbak baino ez ditu bezeroentzat.

Arrainari buruz ezer gutxi jakinda hasi zenuten bidea.

Aitor Murua: Arraina zer zen ere ez genekien.

Edurne Galdona: Erretiroa hartu zuenean, aurreko ugazabak salgai jarri zuen arraindegia, eta guk hartu genuen. Denbora baterako proiektua izango zela pentsatu nuen, beste zerbaite topatu arte. Baina aurrera jarraitu genuen eta gure proiektua izan da gaur arte. Lehengo ugazabak erakutsi zigun. Gustatu egiten zitzaion arrainaren mundua eta nik ere gustua hartu nion, berari eskerrak.

Goizean goiz hasten duzue eguna.

A.M.: Egunero 04:15ean esnatzen naiz, Ondarroatik eta MercaBilbaotik arraina ekartzeko. Gero mostradorea prestatu, eta Edurne etortzen da. Eguerdia arte hemen egoten gara biok.

E.G.: Askotan, bezperan pentsatzen dugu zein arrain erosi. Ardura hori hor dago.

A.M.: Oso produktu delikatua delako, oso galkorra. Argi ibili



Aitor eta Edurne Traña-Matienako arraindegian.

behar da zer eta zenbat erosi; prezioa ere oso aldakorra da. Askoz ere hobea da ardura norberak hartzea. Dena dela, behin martxa hartuta ez da gatxa.

Urteotan aldatu egin da bezeroa?

A.M.: Janari prestatua geroago eta gehiago kontsumitzen da, eta, zoritxarrez, bezero asko hil da. Gazteagoek ez dute arraina kontsumitzen, hemen ez behintzat. Baliteke beste nonbaiten erostea. Pena da, apurka auzoko negozioak ixten doazelako. Egun batean Traña-Matienan tabernak baino ez dira geratuko (barrez).



Bezeroek zelan hartu dute itxiera?

A.M.: Penaz. Adineko jendeak esaten digu eurengan eragin handia duela, zoritxarrez. Ez dakite nora joan. Kotxea hartu eta beste nonbaitera joan behar dugu askotan. Instituzioetatik esaten digute gutxiago erabili behar dugula kotxea, mugikortasunaren alde, baina gero, ogia erosteko, adibidez, kotxea hartzen dugu. Komertzio txikiak zerbitzu bat ematen du eta horixe izan da gure apustua beti.

E.G.: Gainera, batez ere adineko bezeroekin, badago konfiantzazko harreman bat. Telefonoz deitzen dute eta arraina prest dagoenean etortzen dira. Lasaitasun hori dute, konfiantza dute gudan, etxe ondoan.

Bereziki gogoan duzuen bizipena?

A.M.: Pandemia. Gogorra izan zen, baina berezia aldi berean. Auzokide guztiek hona etorri beharra zuten. Zenbat jende! 'Egindakoak zerbaierako balio du', pentsatzen genuen.

E.G.: Ohartu ginen ezinbestekoak garela batzuetan. "Eskerrak zuek zaudeten", esaten ziguten.

Ixtea erabaki gatxa izan da?

E.G.: Bezeroagaz harremanak asko aberastu nau; arraindegira datozenek beti ematen dute zerbaite, eta badut pena apur bat. Urte asko dira, jendea asko ezagutu dut, belaunaldi asko...

A.M.: Denbora libreaz disfrutatzeke gogoz nago ni.

Zelan ikusten duzue etapa berria?

E.G.: Biok lan handia egin dugu eta etapa polit bat hasiko dugu guretzat denbora hartzeko. Ari-keta egitea gustuko dut, garrantzitsua da ondo egoteko. Duela bi urte yogan hasi nintzen eta oso aberasgarria izan da.

A.M.: Denbora librea aprobeztatu dugu. Mendira joatea eta ibilbideak egitea gogoko dugu. Osasuna lagun dugu, gainera.

Motzean

Garbitzeko arrainik gatxena?

E.G.: Zapoa.

A.M.: Oilarra.

Arrain gustukoena?

E.G.: Txitxarroa.

A.M.: Hegaluzea.

Arraina laban ala arrautzaztatuta?

Biak: Laban.

Faltan igarriko duzue...

Biak: Bezeroekin harremana.



Eraikin berria bizi-kalitate berarekin Durangon.

2 eta 3 logelako 47 etxebizitza berri, San Roke Barria II. Sukaldea guztiz hornitua eta armairuak gela bakoitzean.



GARAJEA



TRASTELEKUA



GIMNASIOA



RELAX GUNEA

946 46 20 41 sukia.com

SALMENTA BULEGOA: Astxiki kalea, 1. Durango

sukia
Zure etxean zaudete. Estás en tu casa